



2014ko apirilaren 4a - 426 zenbakia

Aiurri

Beterri-Aiztondoko hamaboskaria


- ▶ Iraitz Lizarraga, aktore baino askoz gehiago
- ▶ Zigor Lanpre, bere tokia aurkitu duen DJa
- ▶ Joxe Mari Kortajarena nahiz Josefina Tapiarekin solasean

Sorozabaletik Mendiluzera



Bideo ugari **aiurri.com** gunean

www.youtube.com/user/Aiurri/videos



36ko Gerran fusilatuei eta senideei aitortza



Zizurkilen Teodosio Enea eraitsi dute




Gure esku dago, giza-katea Villabona-Zizurkil artean



Berdintasun planaren aurkezpena



Njiengwe sendagilea Asteasun




Adunako Udalaren adierazpena



Andoaingo ereserkia




"Frankismoa Amasa-Villabonan" erakusketaren irekiera ofiziala




Sorozailetik Mendiluzera, aurkezpena



Larraul-Ernio-Larraul lasterketa 2014, helmugaratzea



Musikarien elkartrukea Villabonan



Nerea Barriola eta Ana Iparragirre

...Aiurri, eskualdeko nortasun hitzak



Iritzia

Mikel Mancisidor
Andoain

et on board,

2014ko martxoaren 26a

aur gertatu da. Ziurrenik bai- ta atzo eta bihar ere. Baina gaur gure gelan, biharko gre- baren harira. Ohikoa dugun pun- tualtasun falta arrazoi, taxuzko atxikimendu kolektibo bat adieraz- teko astirik eman ez badigu ere, bihar LOMCE-ren aurkako greba deitu dutela gogoratzeko bildu gara ikaskideok, bakoitzak bere erabakia informatu ostean har zezan sikiera. Greba egin/ez egin, norbere esku.

Eta horixe da gakoa. Gure esku egon arren, ez garela piperrik egi- teko gai. Hainbeste gorai patzen dugun askatasun individual horre- tan galdu egiten garela, eta kon- tatzeko hainbeste daukanak pape- ra zuri-zuri lagatzen duela. Edo betiko leloez beteta.

Lagin honetatik bi ondorio atera ditut nik. Lehena, ez dakigu- la gure eskubideak zein diren eta greba baten aurrean planteatu beharreko jarraibideen inguruan

Albokoen erabakiaren arabera izan da askoren postura. Askatasuna zama bihurtzen baitzaigu taldeko ardi beltz izatearen izuz

arrastorik ere ez daukagula. Uste dut horri deitzen diotela "kultura politikoa"; bada, guri bidean gal- du zaigu. Baina bigarrena zait kez- kagarrien: ez daukagu irizpide pro- piorik. Eta propio diodanean nor- banakoaz ari naiz: ni, Mikel eta zu, Amaia.

Izan ere, pauso bat norantz eman erabakitzeke garaian, alde batera edo bestera bultzatuko gai- tuzten arrazoiak bilatzen ditugu. Bakoitzak zer eman eta zer ken die- zagukeen baloratu behar izaten

dugu eta balantza nora okertzen den, hara jo. Horraino konforme (nahiz eta beti dagoen, eta grebaz ari naiz orain, galdutako praktika errekuateratzerik ba ote den gal- detzen duen despistaturik).

Alabaina, alde batera edo bes- tera egin, hankak lurrean beti, sus- triaik finko izatea gustatzen zai- gu. Eta ingurua da gure lurra. Ingurua da elikatzen gaituena. Bestela zimeldu egingo ginateteke eta. Gaur horixe gertatu da: albo- koen erabakiaren arabera izan da askoren postura. Askatasuna zama bihurtzen baitzaigu taldeko ardi beltz izatearen izuz. Niri bai behintzat.

Ez dakit zenbaiten iraultzaile grinak zenbat duen artalde-efek- tutik, gauzak "egin behar direla- ko" egin behar horretatik, eta zen- bat norbere konbentzimendutik. Baina hobe genuke, tarteka behin- tizat, gure iparrorratza nork gida- tzen duen aztertuko bagenu.



Babesleak: Aduna, Andoain, Amasa-Villabona, Asteasu, Larraul eta Zizurkilgo Udalak.



Argitaratzaile eta ekoizlea:
Egoitza Orokorra: Arantzibia plaza, 4-5 behea. 20140 Andoain. **Tel.:** 943 300 732. **Faxa:** 943 300 731. **E-posta:** beterrri@aiurri.com

Aiurriko egoitza: Arantzibia plaza, 4-5 behea. Andoain

Zorion agurrak: diseinua@aiurri.com
Oharra: zorion agurrak garaiz bidali behar dira, urtebetetze eguna baino hamar egun lehenago.

Arduraduna: Ainhoa Arozena. @: arozena@aiurri.com

Eredakzioa: Ainhoa Gil, Ainhoa Arozena. @: gil@aiurri.com

Eredakzio laguntzaileak: Jon Ander Ubeda, Xabier Lasa, Txomin Garmendia, Antselmo Larrarte, Koldo Jauregi, Aitor Usandizaga, Garazi Kamio, Leire Zubeldia, Marijuli Azkue, Iban Balerdi, Joxin Azkue, Mikel Mancisidor, Igotz Alkorta, Jon Miranda, Arantxa Iartza, Arkaitz Lasa, Odei Esnaola, Iñaki Sorarain, Ainara Loyarte eta Ander Leon.

Edizio jarraia: www.aiurri.com

Maketatzailea: Maddi Trutxuelo. @: diseinua@aiurri.com

Diseinua: Maddi Trutxuelo eta Jon Ander Ubeda.

Publizitate arduraduna: Fernanda Irazu.

@: publizitate@aiurri.com

Administratzailea: Garbiñe Ugartermendia.

@: idazkaritza@aiurri.com

Banaketa arduraduna: G. Ugartermendia.

Banatzzaileak: ANDOAIN: Mikel Arregi.

AMASA-VILLABONA, ADUNA, ZIZURKIL,

ASTEASU eta LARRAUL: Garazi Altuna.

Harpidetza egiteko: idazkaritza@aiurri.com

Inprimategia: Antza inprimategia. (Lasarte-Oria).

Lege Gordailua: SS-202/94.

ISSN: 1134-0614. | **Tirada:** 1.800 ale.

Banaketa sistema: 1,30 € / Harpidedunei banatua

Laguntzaileak:

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAIALA
Hizkuntza Politikarako Saiburordetza

Gipuzkoako
Foru Aldundia

Aurkibidea

426 zenbakia

2014ko apirilaren 4a

Hamabostean behin

Hitzak hotz: Mikel Mancisidor 3

Irudi berria

Agur Teodosio Enea etxeari 6

Bideoena, Aiurriren

leihotxa Internet sarean 7

Aduna

Zabor sistema bilketa,

bigarrenez erasotua 8

Andoain

'Sorozabaletik Mendiluzera' ekimena apirilaren 3tik 5era 9

Jokin Sorozabal bertsolariari

elkarrizketa 10-11

Aitor Mendiluze bertsolariari

elkarrizketa 12-13

Larraul / Asteasu

Joxe Mari Kortajarena

lirbarrenekin solasean 14-15

Zizurkil

Iraitz Lizarraga, aktore baino askoz gehiago 16-17

Amasa-Villabona

Zigor Lanpre, bere tokia aurkitu duen Dja 18-19

Magazina

Herritarren txokoa:

Josefina Tapia Urkia 20

Aiztondon barrena, klik eta klik,

VI. Argazki rallyan 21



www.aiurri.com

Albistek

Villabona eta Zizurkil, giza-katearekin lotuta



ZIZURKIL ■ 2014-03-31

Joan zen martxoaren 28an, ostiralarekin, hitzordu berezia izan zen Villabona eta Zizurkilaren artean. Arratsaldeko 18:30etan hasita, eskualdeko herritar askok bat egin zuten Gure esku dago ekimenak egindako deiarekin. Zubimusu eta oinezkoen zubiak batuz, giza-kate jendetsua osatu zen, giro ederrean. Ekainaren 8ko dei nagusiari begira jarrita dago Aiztondo dagoeneko. Durango eta Iruñea batuko dituen giza-kate erraldoian izango da eskualdeko herritarren ordezkaritza zabala.

Aitortza, 36ko Gerran fusilatutakoei



AMASA-VILLABONA ■ 2014-03-31

Joan zen larunbat eguerdian aitortza instituzionala eskaini zitzaizen 1936ko urriaren 1ean Francoren gudarosteak Tolosan fusilatutako Jose Antonio Garmendia, Jose Agustín Garmendia eta Kruz Iribarren billabonatar errepublikarrei eta haien senideei. Ekitaldi hunkigarria izan zen udaletxekoa, zeinetan aitortzaz gain, gerran galdutako senideen gorpuzkinak jaso baitzituzten senideek. Udaleko ekitaldiaren ondoren, Amasako hilerrian eman zien lur aipatu gorpuzkinei.≤

Aizkadiren 46. Ibilaldi neurtua, arrakastatsua



AMASA-VILLABONA ■ 2014-04-1

Igandean, martxoaren 30ean burutu zen Aizkardi mendi taldearen 46. Ibilaldi neurtua. Oso parte hartze zabala izan zen: 639 partaide ibilaldi luzean eta 823 ibilaldi motzean. Aizkardi-ko antolatzaileak gustura geratu ziren jasotako erantzunarekin. Giroa ere lagun izan zuten ibiltariak. Ibilaldia amaituta, opariaren zozketa egin ohi da urtero. Aurten, 75 opari banatu ziren parte hartzaileen artean. Antolatzaileek eskerak eman nahi dizkiete laguntza eskaini zuten herriko eta inguruetako merkatariari.

Ereserkia

ANDOAIN ■ 2014-03-27

"Andoingo ereserkia", herriaren eta herritarren ondare. Andoingo ereserkiaren estreinaldiak ez zuen inor epel utzi. Txalo zaparrada eta errepikatze eskaera izan zen ikusleen erantzuna. Alberto Agirre eta Basteroko helduen abesbatzak eta Basteroko musika bandak interpretatu zuten ereserkia, Urkiko lau dantzariarekin batera. Intepretazioari ekin aurretik, Joxe Mari Oíartzabal eta Aitor Mendiluze egileek abestiaren nondik norakoa azaldu zuten. Joxe Mari Oíartzabalek, doinua osatzera zerk bultzatu zuen azaldu zien Basteroko entzuleei: "Leitzaran auzoan kokatzen den Olabista etxean jaio nintzen, Lizarkola baserriaren ondoan. Herrikoa, bertakoa da nire familia. Bertan egin nituen lehen musika ikasketak, eta bertan eduki nuen lehen lanpostua ere. Andoain bihotzean daramat".

Berdintasun plana

ANDOAIN ■ 2014-03-31

Berdintasunerako bigarren plana martxanda. Andoingo Udalak Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako bigarren plana aurkeztu berri du. Lau urteko iraupena izango du eta aurtengo jardueretan jabetze eskola nabarmenduko da. Trebatze saioak izango dira, alor ezberdinetan burutuko direnak. Besteak beste, mekanika tailerra, autodefentsa ikastaroa edota brikolaje tailerra. Batukada feminista martxan jarri nahiko lukete Sanjuanetarako. Ana Carrere alkateak adierazi bezala, "emakume eta gizonen arteko berdintasunean bizi nahi dugu, eta helburu horren bila urte luzez lanean aritu dira emakume asko, baita hainbat gizonezko ere". 2013an jarri zuten martxan Berdintasunerako plana, eragile eta elkarte ezberdinen lanari esker. Berdintasunerako plan osoa www.andoain.org gunean eskuragarri dago.

Argazkiak

Agur Teodosio Eneari, Aizkardiaren ibilaldi neurtua, Andoingo ereserkia, Giza-katea, Aitortza...



www.flickr.com/photos/aiurri

Bideoak

Fusilatuen senideei aitortza, Agur Teodosio Eneari, Giza-katea, Sorozabaletik Mendiluzera aurkezpena...



www.youtube.com/user/Aiurri/videos

Udaberriko kolekzio berria

ORMENDI KIROLAK

Kale Berria, 2 - Tel./Faxa: 943 591 806 - 20140 Andoain (Gipuzkoa)

Zorion-agurrak

Igorri argazkia eta idatzia Andoaingo edota Zizurkilgo egoitzara

diseinua@aiurri.com edota www.aiurri.com/agurrak.php



ZORIONAK

Zorionak Antonio Garitano eta Josefa Lizaso, Urrezko eztaiak beteko dituzue apirilaren 4an. Zuen 50 urte luzez 8 seme-alaba izan dituzue. Apirilaren 6an, igandearekin, zuen familien artean egingo duzuen ospakizunean ondo pasa dezazuela. Familiaren partetik.

Andoain



ZORIONAK

Asier eta Unai: Martxoaren 26an 9 urte bete zenituzten. Zorionak eta muxu piloa zuentzat!!! Aitona eta Amona.

Andoain



ZORIONAK

Amona Salusek 90 urte bete zituen martxoaren 28an. Zorionak etxekoan partetik eta zure biloben partetik: Urko, Nerea, Alaia, Haize, Ekhi eta Adur! Muxu potoloak, merezi dituzu eta!!!

Andoain



ZORIONAK

Apirilaren 13an Garazi Ollakarizketak zortzi urte beteko ditu. Urteaskuan polit hori!!! Beti bezain alai jarraitu. Ondo-ondo pasa zure urtemugan. Muxu piloa zuretzat etxeko guztien partetik.

Zizurkil



ZORIONAK

Maren Usaralde Urbietak urtebetexko egin zuen apirilaren 1ean. Ze azkar pasa zaigun denbora. Bere aitona Joxe Luisek 27an, Marenek itzalitako kandela bakar horren aurretik beste 6 itzaliko ditu. Ze hilabete borobila daukagun. Besarkadak biori. Etxekoak.

Andoain



ZORIONAK

Olaiak 6 urte beteko ditu apirilaren 11n, eta aitona Anttonek 86, egun berean. Zorionak eta muxu potoloak etxeko guztien partetik.

Zizurkil



ZORIONAK

Hodei Lantz Audikanak 6 urte beteko ditu apirilaren 11n. Egundak polita pasa. Muxu pottoloak etxeko guztien partetik.

Andoain



ZORIONAK

Apirilaren 8an Aimar Arriagak 6 urte beteko ditu. Zorionak eta muxu potoloak etxeko guztien partetik!

Andoain



ZORIONAK

Ufa!! Dagoeneko 13 urte!! Aurten bizkotxo eta pastak zure kontura!! Zorionak ederra!! Etxekoak.

Andoain

Tradition 2.1 emanaldirako sarreraren zozketa

Apirilaren 12an Oinkari dantza taldeak eta Korrontzi folk taldeak Oladerra kirodegian eskainiko duten emanaldirako lau sarrera luzatu zizkion dantza taldeak Aiurri aldizkariari, irakurleen artean zozketatzeko. Zozketaren berri Airriko webgunean, Facebook nahiz Twitter bidez zabaldu zen eta irakurle ugari hartu du parte. Horien artean irabazleak honako biak:

Haritz Mujika Lasa | Jon Ander Belamendia

Apirilaren 12an, leihatilan bertan bina sarrera izango dituzue zuen esku-
ra. Ondo pasa! Mila esker parte hartu duzuen gainerako irakurle guztiei.

Demografia

JAIOTZAK

Mateo Garcia Puente

Martxoaren 18an, Andoainean

Lucia Castro Garcia

Martxoaren 25ean, Amasa-Villabonan

Jon Diaz Paisal

Martxoaren 30ean, Amasa-Villabonan

Laida Irastorza Irazusta

Martxoaren 30ean, Asteasun

HERIOTZAK

Felix Fernandez Godoy

Martxoaren 18an, Andoainean

Xabier Begiristain Arruti

Martxoaren 20an, Andoainean

Fernando Gaston San Juan

Martxoaren 21ean, Andoainean

Alejandro Ortega Barbero

Martxoaren 22an, Andoainean

Ramona Eloa Zubizarreta

Martxoaren 27an, Andoainean

Jexus Jauregiberri Berakoetxea

Martxoaren 30ean, Zizurkil

Eladio Gomez Perez

Martxoaren 28an, Amasa-Villabonan

Valeriano Madera Godoy

Martxoaren 30ean, Amasa-Villabonan

Zorion-agurrak bidaltzeko aukerak:

1. www.aiurri.com/agurrak
2. Igorri argazkia eta idatzia Andoaingo egoitzara.
3. diseinua@aiurri.com
943 300 732



**TXERRIKIEN
BANATZAILE ETA
EKOIZLEA**

ENPRESEN ZENTRUA Ama Kandida, z/g
307. Moduloa ANDOAIN Tel.: 943 592 923
www.ormaki.net



**Baserriko haragia
Urdaitegi berezia**

Bulandegi bidea,1. Zizurkil
943 69 62 42

Kate motzean

Eneko Ariceta San Sebastian

Herria: Larraul

Lanbidea: Langabea

**HEDABIDEEN INGURUAN:****Aiurriko atalik gogokoena?**

Herrietako kronikak

Aldizkarian faltan botatzen duzuna?

Gurutzegrama

Idatzizko beste hedabiderik?

Berria

Irrati-saiorik? Musika**Telebistan zer?** Denetik**ALKATE BAZINA...****Ezer aldatuko al zenuke zure herrian? Eta eskualdean?** Ez naiz

alkate gisa ikusten

AUKERAN BAKARRA**Pertsonaia:** Irujo**Animalia:** Arranoa**Jakia:** Arrautza**Edaria:** Garagardoa**Liburua:** La sombra del viento**Kantua:** Txoriak txori**Filma:** Mafia: rito de sangre**Musika tresna:** Gitarra**Kolorea:** Berdea**Urtaroa:** Udaberria**Zaletasuna:** Eneritz**Kirola:** Pilota**Jantzia:** Galtza motzak**Txoko kuttuna:** Sofa**BARRU-BARRUTIK****Zertan berpiztuko zinateke?** Arranoan**Zeri diozu beldurra?** Emaztegaia-ri**Desioren bat?** Irujo txapeldun**ZENTZUMENAK****Usaina:** Natura**Zaporea:** Marrubiak**Hotsa:** Itsasoa**Ikuspegia:** Mendi gailurrekoa**Ukitzea gogoko duzun zerbaite:**

Elurra

Agur Teodosio Enea



XX. mende hasieran Zizurkilgo Elbarrena auzoan eraikitako Teodosio Enea etxea eraitsi zuten joan zen martxoaren 29an. Historia luzeko etxea zen Zizurkilan, baina orain, plaza eraberritzeko lanek espazio zabalagoa eskatzen zuten eta eraikin zaharra botatzea erabaki dute. Herritar ugari gerturatu zen larunbat eguerdian Joxe Arregi plaza ingurura, Teodosio Enea etxeari agur esan eta haren azken irudiak jasotzera.

Goizeko 08:00etarako hasi ziren langileak etxea eraisteko lanetan eta goiz osoan zehar aritu ziren bertan lanean. Galdera bitxia egin zuen ikusmiran zegoen herritar batek: "Nora joango dira orain Teodosio Enea etxeako usoak?". Uso helduenak, inguruko etxeetako teilatuetan pausatu ziren etxea botatzen zuten bitartean, euren bizileku ohiari begira bezala. Badirudi haietako askok Teodosio Berri etxearen teilatua hartu dutela orain bizileku. Gertutik gertura geratu dira, beraz.

Bost belaunaldiren bizileku

Teodosio Almorzak eraiki zuen Teodosio Enea etxea Zizurkilan. 1900 urtean eskatu zuen etxea eraikitzeko baimena eta Foru Aldundiari lurra erosi zizkion. Bere izena jarri zion Asteasu erreka gainean eraikitako etxeari, mende pasatxoan, Elbarrenako paisaia historia luzeko etxea izan denari.

Teodosioren asmoa, etxe hura familiako kideen bizileku izatea zen eta tartean, maizterrak ere bizitu diren arren, hala ere gauzatu da bost belaunalditan zehar. Lehen solairuan Almorza familia kokatu izan da beti. Mikeli Goikoetxea, Joan Joxe Almorza zenaren alarguna, haren alaba Jokinek eta honen senar Juan Gomezek, Joseba eta Itziar seme-alabekin batera eman diote amaiera etxeari. Bigarren solairuan, berriz, Mirren Carton-en familia bizitu da azken 50 bat urtean.

Eraisketaren argazkiak eta bideoa ikusgai: www.aiurri.com

Bideoena, Aiurriren leihotxo Internet sarean

Aiurri hamaboskaria argitaratzen hasi zela hogeitau urte igaro dira. Zenbakiak bere horretan zentzuzko garrantzia du? Hementzigarrena baino garrantzitsuagoa al da hogeigarrena? Aiurri astekaria argitaratzen hasi zela hamar urte beteko dira udazkenean. Zerk egiten du zenbakia "borobil" bezala izendatzea? Zergatik ez da bederatzigarrena hamargarrena bezain borobila izango? Aiurri.com gunean ikus daitezkeen bideo kopurua milara iritsi da. Aipatzeko modukoa al da milagarrena? Eta zergatik ez aipamena egin kontagailuak dagoeneko erakusten duen mila eta zortzigarren zenbakia?

Zenbakien festa hori nondik aztertu, nola aztertu..., hortxe da gakoa. Aiurri bezalako hedabidearentzat aipagarriak dira kopuruak, bere tamainan beti ere. 10, 20, 1000..., zenbaki horien itzala da nabarmendu beharrekoa. Egindako ibilbidea erakutsi, egungoa adierazi eta geroa aurreikusten duelako.

Kazetaritza molde berrietara egokitzen ari da, eta kazetaria berdin. Tokiko hedabideetan kazetariak joera berriei erreparatu eta komunikaziorako teknologia berriei denbora eta lana eskaintzen ari zaizkie. Prezio berean, hori ere esan beharra dago. Geroz eta gehiago direlako unean uneko gertaerei erreparatzeko interneta erabiltzen duten herritarrrak. Eta, geroz eta gehiago direlako eskuko telefonoak erabiliz informatzeko joera hartu dutenak.

Aiurri bideogintzan apostua egin du: Albisteak lantzeko, osatzeko eta aberasteko bideoak erabiltzeari ekin zion orain lauzpabost urte.



10, 20, 1000, ...
zenbakiak egindako
ibilbidea erakutsi,
egungoa adierazi
eta geroa
aurreikusten dute

Dagoeneko milatik gora dira bideoak. 2014ko hasieran bereriki Aiztondoko hainbat bideo txertatu ditu Aiurri Youtube-tan duen kanalean, gerora Aiurri.com gunearen bitartez ere ikus daitezkeenak.

Askoren artean, hauexek:

- **Larraul-Ernio-Larraul.** Lasterketa hasi aurretik Garini omenaldia egin zioten. Lehen sailkatuen helmugaratzea ikus daiteke bideoan.
- **Urki dantza taldea** Andoaingo San Joan bataiatzailea zaharren egoitzan.
- **Andoaingo Ereserkia.** Joxe Mari Oizartzabal musikariak eta Aitor Mendiluze bertsolariak Andoaingo herriaren ereserkia osatu dute. Batek musika eta besteak hitzak. Kantua bere osotasunean entzun daiteke.
- **Adunako Udalaren adierazpena.** Zaborra biltzeko txabo-

lak erre zituztela eta, Udalak gertaera salatzeko agerraldia egin zuen erreketetako bat izan zen tokian bertan.

- **Sorozailetik Mendiluzera.** Andoaingo bi bertsolarien aldeko ekitaldia iragartzeko prentsaurrekoan, antolatzaileek ekitaldi sorta abian jartzeko arrazoiak eskaini zituzten.
- **Giza-katea Villabona-Zizurkil.** "Gure esku dago" ekimenarekin bat eginez, ehunka herritarrek bi zubi lotuz giza-katea osatu zuten.
- **Teodosio Enearen eraisketa.** Martxoaren 29an eraitsi zuten Zizurkil azken hamarkada luzetako eraikina.
- **Fusilatuen senideei aitortza.** Amasa-Villabonako Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak 36ko Gerran fusilatu zituzten hiru herritarren senideei aitortza eskaini zien.

Amasa-Villabonako 36ko Gerraren inguruko ekitaldiak, Andoaingo Ereserkia, Teodosio Enearen eraisketa, Ernio-Larraul lasterketa, ... Albisteak Aiurri landu ditu. Maiz paporean azaltzen zail egiten diren emozioak bideoak biltzen ditu bere baitan. Zenbakiak zenbaki, bide horretan sakontzeko erredakzio batzordearen asmoa argia da.

Motorraren gida

Mendi autoeskola



Ikastaro trinkoa,
loru teorikoa bost egunetan

Agustín Leiza 11 - 20140 Andoain
Tel./Faxa: 943 300 604

IBAI-ONDO
GARBIKETAK
Industrialdea, 16
20170 IRURA
943 692 256

publizitatea
943 300 732
publizitatea@aiurri.com

Merkatu txikia

Hemengo intxaurra erosi-ko nuke, deitu 634 409 888.

Emakume euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko goizetik. Deitu: 610 265 472.

47 m²ko lokal bat alokatu edo saldu nahiko genuke, Andoaingo erdigunean. Komuna eta dutxa eta ur-hornikuntza prest dituzte eta oso argisua da. Bi solairu egiteko aukera. (Edu-rne) 687851740.

Ingeleseko, frantseseko klaseak ematen dira, bakarka edo taldeka, maila ezberdinetan. Irakasle tituluduna. 664 160 268.

Matematika, fisika eta kimikako gaiak ematen dira

maila guztietan. Bakarka edo taldean. Ingenieritzan tituluduna. 664 160 268.

Andoaingo Zumea plaza-ko aparkalekuan dagoen marra alokagai, Eroski behealdean. 607 32 58 94.

Andoaingo Rikardo Arregi edo Mimendi inguruan garaje bat erosi edo alokatu nahiko nuke. 647 952 919.

Behor bat saltzen da! Raid edo ibilaldietarako oso egokia. Izaera ezin hobea. Fisiko harrigarria. Deitu eta informatuko zaituzte: 620011889

Erosi, saldu, aldatu, lan eskaintzak eta proposamenak..., tartea dohainik.

diseinua@aiurri.com

943 300 732 telefonora deituta

, abor b,, eta ,,, te, a, b,, arrene, era, ot, a

Joan zen **martxoaren 24an**, Adunako zabor bilketa sistemak jasandako erasoak salatu zituzten Udaleko kideek, herritarrak modu ezin hobean erantzuten ari direla nabarmenduz.

dunako zubiaren ondoan erretako egurrezko txabolaren aurrean eskaini zuten prentsaurrekoa Udaleko kideek. Josu Amilibia alkateak hartu zuen hitza eta martxoaren 17an, bi hilabete-ko apean, Adunako herriak bigarren eraso jaso zuela salatu zuen, "Zubixiki industriguneko hondakinen birziklagune txabola erre zuten egun horretan. Bigarren eraso da. Urtarrilean, Aduna eta Villabona lotzen dituen zubiaren ondoko birziklagune txabola ere erre egin baitzuten". Egileak zeintzuk diren ez dakitela azaldu zuen Josuk, "bertakoak edo kanpokoak". Baina gauza bat argi dutela jakinarazi zuen, "dakigun bakarra, Adunan ez dela polemika berezirik sortu bilketa sistemaren aldaketaren harira; aldaketa, herritarrekin eta normaltasunez egin baita. Erasoekin herritarrak dira kaltetuenak, egunerokotasunean aldaketak sortzen zaizkielako".

Herritarrak bikain

Amilibiaren hitzetan, "azken hilabeteetan hondakinen gaia-ekin polemika politiko guztiz interesatua sortu nahian ibili dira batzuk, eta Adunakoa ez da gaikako bilketa egiteko era-



Adunako Udal ordezkariak, martxoaren 24ko agerraldian.

biltzen den mobilioaren aurkako eraso bakarra izan". Ondorioz, deia luzatu zuen: "gai honen inguruan polemika sortu nahi duten guztiei bere jokaera alda dezaten dei egiten diegu". Hondakinen ara-

zoa guztiona dela eta guztion artean konpondu behar dela gaineratu zuen alkateak. "Denok ados bagaude gehiago birziklatu behar dela esaterakoan, zergatik eraso hauek? Zergatik oztopoak jarri gehien

Herri batzarraren erabakia

Prentsaurrekoa eta gero, herri zen asteetan, beraz, Zubixiki indusbatzara burutu zen Udaleko kide triaguneko txabola berreraikitzen nahiz herritarren artean egoera hasiko dira. Bitartean, hondakinak aztertu eta gaiari irtenbideak aur herriguneko edukiontzietara ekar kitzeko. Batzarrera gerturatutakotzea eta errefusa, orain arte beza-herritarrek argi erakutsi zuten ~~xa~~ la, kubo grisean astean bitan ate bolak berriro eraiki beharra, siste-ratzen jarraitzeko dei egin zuten ma egokitza jo baitzuten. ~~Da~~to Udal ordezkariak.

Denok ados bagaude gehiago birziklatu behar dela esaterakoan, zergatik eraso hauek?

birziklatzen ari diren bilketa sistemei?". Prentsaurrekoan adierazi zutenaren arabera, hondakinak jasotzeko sistemaren aldaketak ez du arazo aipagarririk sortu Adunan. "Herritarrak pozik daude aldaketarekin eta modu ezin hobean erantzuten ari dira. Azaroaren erdialdean hasi ginen sistema integralarekin eta konpostajea duela urte eta erdi lantzen dugu. Organikoa-ren %100 herrian kudeatzen dugu eta beste frakzio guztiak gaika biltzen ditugu". Emaitzen neurketa maiatzean egin eta jakinaraziko dute Udal ordezkariak, baina baikor agertu dira, "jakin badakigu eta esan dezakegu emaitza ezin hobek izango direla". Adunako Udalak eta herritarrek biderei eutsiko diotela esanez amaitu zen prentsaurrekoa, "etorkizuna prebentzioa, berrerabilpena eta birziklapenaren bide-tik datorrelako".



LEIZARAN INSTITUTUA

lazaola kalea, 3

040 Andoain

943 300 00

leizaran.net

0740aaheskuntzanet

D

eta D

er

TXILERGOAK:

Zientia

manista

Gmaila

Gizarte

Int

goizez eta arratsaldez

pro ,aba,et, Mh d, , era e, ,, ena, ap,r,,aren , t,, , era

Andoaingo bertsolaritza ardatz hartuta, ekitaldi ezberdinak egingo dituzte herrian datorren asteburuan. **Jokin Sorozabal** eta **Aitor Mendiluze** bertsolariek, esaterako, herritarren esker-ona jasoko dute.

erriko hainbat eragile bildu da ekimena bultzatu eta antolatzeko garaian. Andoaingo Udala, bertso eskola, AEK euskaltegia edota Aiurriko ordezkariak buru-belarri aritu dira prestaketa lanetan. Jokin Sorozabal eta Aitor Mendiluze bertsolariek hainbat urte-tan plazaz plaza egindako lanaren aitortza jasoko dute, baina azken mendean bertsolaritzak herrian izan duen oihartzuna ere aztertuko da.

Joan zen martxoaren 24an aurkeztu zuten ekimena Andoaingo udaletxean. Ainara Rodriguez zinegotziak aipatu zuenez, “bi izen handi ekarri nahi izan ditugu gogora. Jokin eta Aitor, biak ere puntako bertsolariak izan ditugu edo ditugu gaur egun ere. Horraino iristeko, ordea, lan eta ahal-egin handia egin behar izan dute eta hori eskertzeko asmoz jarri dugu martxan esker-oneko egitasmoa”.

Atzera begirakoa

Egitasmoari hasiera emateko, Andoaingen bertsolaritzak historian zehar eman duena aztertuko dute. Horretarako, solasaldia antolatu dute Errekaburu elkartearen. AEK euskaltegiko kide den Joxemi Aranburuk eman zuen antolatutako ekitaldi guztien berri: “Apirilaren 3an, arratsaldeko 20:00etan hasita, Andoaingo bertsolaritza eta bertsozaletasunaren inguruko solasaldia antolatu dugu Errekaburu elkartearen. Aurreko mendetik hona herrian izandako bertsolari eta gai jartzaileen pasadizoak gogoratuko ditugu, mokadutxoa janez”.



Ekimena antolatu duten talde eragileetako ordezkariak, aurkezpen egunean.

Jokin Sorozabalek eta Aitor Mendiluzek bertsolaritzan egindako ibilbidearen aitortza ekitaldia egingo dugu

Larunbatean, esker-ona

Apirilaren 5ean, larunbatarekin antolatu dute esker-oneko ekitaldia. “Jokin Sorozabalek eta Aitor Mendiluzek bertsolaritzan egindako ibilbidearen aitortza-ekitaldia egingo dugu. Arratsaldeko 19:00etan hasiko da ekitaldia, Basteron. Ekitaldi xumea izango da eta herritar guztiak gonbidatu nahi ditugu bertara”, azaldu zuen Joxemik. Bertso afaria eginez emango diote amaiera ekimenari: “Ehun bat pertsonentzako tokia prestatuko dugu Basteroko ekitaldi aretoan. Jokin eta Aitorrekin plazetan ibili diren bertsolariak biltzen saiatu gara. Bertan izango dira, esaterako, Maialen Lujanbio, Mikel Mendizabal, Millan Telleria, Unai Agirre, Jon Sarasua, Jexux Mari Irazu...,

besteren batzuk ere izango direla uste dugu. Garai bertsuan plazan ibilitako bertsolariak bildu eta lagunarteko saioa egitea da helburua. Tarteetan, beste sorpresa bat ere izan daiteke”, amaitu zuen Joxemik.

Bertsoa herrian, egun

Ion Beloki andoaindarrak ere hitz egin zuen bertso eskolaren ordezkari gisa. Bertsolaritzak egun Andoaingen bizi duen egoera hartu zuen ahotan: “Orain bost bat urte sortu zen helduen bertso eskola, Larramendi Bazkunaren babesean, eta harrez gero, sendotzen joan da. Egun, hamabi bat lagunek osatzen dugu eskola. Gaztetxoei begira, berriz, esan behar da 9-12 urte bitarteko herriko ikastetxe guztietako ikasleak hurbiltzen direla bertso mundura, Gu ere Bertsotan ekimenaren bitartez. Unai Muñoaren gidaritzapean, 300 haur inguru ari dira bertsolaritza ikasten aurten. Bestalde, gaztetxoek bertso eskola sortu dugu aurten, eta sei bat ikaslez osatu da oraingoz. Zalantzarik gabe esan daiteke bertsoaren inguruan dezente mugitzen den herria dela Andoaingoa”.

Di

SNE PRODUKTUAK, AUTATUTU
MONTSERBAK ETA KALITATEA

USKAL ERRIKO PRODUK
OINARRITUA

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística

O

libro denda

Patxine
jatetxea

Gu ziaua
EUSKA SUKADARITZA
ET A ET EK O POSTREAK
E a11 - ASTEASU
T 10 25

Jokin Sorozabal, bertsoke

Hamazazpi bat urte zituenean hasi zen Jokin Sorozabal andoaindarra bertso munduan murgiltzen. Makina bat plaza eginda, bere bidea bete duela sentitzen du. Aitor Mendiluze herrikidearekin batera, esker-oneko ekitaldia jasoko du apirilaren 5ean.

Andoaingo eragile ezberdinen artean, esker-oneko 'Sorozabaletik Mendiluzera' ekimena antolatu dute. Nola jaso zenuen gonbidapena?

Ion Beloki andoaindarrak deituta jakin genuen ekimen horren berri. Gustura hartu genuen deia, baina lotsa pixka bat ere ematen du; guk omenaldia merezi badugu, zer merezi dute Egañak edota Lizasok...?

Gure lana goraiatzeko baino, Andoaingo bertsolari-tzaren inguruko ekimena izango da eta horren barnean egingo dute gure lanaren aipamena. Andoainek bertsolari bat baino gehiago eman du historian zehar. Basarriren garaian aritu zen Etxeberría, esaterako. Garai hartan, Aitzolek antolatutako txapelketako aurrekanporaketan, zortzi bertsolari andoaindar aritu zen kantuan. Horien aurretik, 1880 urte inguruan, Pedro Santa Krutz ere aritu zen. Kontu horiek berrituko ditugu apirilaren 3ko mahai-inguruan. Hamarkada batzuetako hutsunea ere izan zen, gure garaia iritsi arte.

Gaur egungora etorrira, bertso eskola indarrean dago herrian. Ekimen ezberdinak antolatzen ari dira gainera.

Bertsolaritzan urte askotako ibilbidea osatu duzu. Esker-oneko ekimen baten premiarik sentitzen al zenuen?

Gure ekarpena egina dago, baino ez dut sentitzen inor nirekin zorretan dagoenik, ezta gutxiagorik ere. Imanol Lazkanok esan izan du bertsolari izatea zorte handia dela. Plazaz plaza zabiltzanean, mimoak jasotzen dituzu euskalgin-



Orexako etxean, Aralar mendikatea atzean duela, Jokin Sorozabal bertsolari andoaindarra.

tza eta herrigintzan ari den jendearen partetik. Borondatez lanean ari den jende horrek emandako tratu duin hori eskertzekoa izaten da.

Hamazazpi urterekin eman zenituen lehen pausoak bertsolari-tzaren munduan. Kontaiguzu...

Kasualitatezko zerbait izan zen. Ordura arte ez nuen lotura berezirik bertsoarekin. Andoaingo jaietan ikusten nituen eta bertsoa zerbait naturala zen nire bizitzan, baina ez nuen bertso gintzan hasteko asmorik. Garai hartan, ordea, bertso eskolen sorrera puripurian zegoen. Herri askotan taldeak sortzen hasi ziren eta gainera, Ikastolen Elkarteak Mikel Mendizabal zeukan jendea bide horretan zirikatzeko. Andoaingo La Sallen lanbide heziketa ikasten ari

nintzen eta taldea sortzeko asmoa martxan jarri zuten bertan. Zenbait ikasle euskalduni luzatu ziguten parte hartzeko deia. Bertsolari-tza baserri munduarekin lotu izan da luzaroan eta gu hortik gertozen. Bost bat lagun hasi ginen biltzen. Iñaki Otaño andoaindarra izan genuen irakasle. Primerako lagunartea egokitu zitzaigun eta pixkanaka bertso-tan trebatzen hasi ginen.

Oso adin berezia da hamazazpi urteko buelta hori, magikoa. Ekintza berria, lagunarte berria..., mundu berria zabaldu zitzaigun begien aurrean. Pertsonalki, gozatu egin nuen eta, aldi berean, bertso-tan ikasten ari nintzela konturatu nintzen. Lehen urtebetean izugarri aurreratu nuen. 1984ko Inauterietako ostiralez bildu ginen lehendabiziko aldiz eta hurrengo urteko martxorako,

Zaldibiko bertso txapelketan nintzen. Oso hasiera azkarra izan nuen, meteorikoa.

Nola hartu zuten etxean zure zaletasun berria?

Ondo. Garai batean etxetik kanpora ibiltzen ziren bertsolariak denbora luzez, batetik bestera, parranda giroan. Gure garaian dagoeneko ez zen horrela eta etxean ondo iruditu zitzaien bertsolari izatea. Aita bertsozalea izan da beti eta ama jarraitzaile sutsua izan dut. Oso adi entzun izan ditu beti nire bertsoak.

Gogoan al duzu lehendabiziko plaza?

Bai, 1985eko martxoaren 10a zen, Zaldibiako txapelketan. Joxe Manuel Oiarzabal eta biok eman genuen izena eta etxean ezer esan gabe joatea pentsatu genuen. Ordura arte koadrilan,

era zaharreko bertsolaria



Nire garaia pasa dela sentitzen dut eta oso lasai nago egindakoarekin. Atzetik datozen gazteek euren publikoa eta estiloa ekarri dute

bertso eskolan bakarrik arituak ginen kantuan eta segurtasun falta handia genuen. Lehen txapelketa haren inguruko pasadizoa ere badut. Garai hartan soldaduska egiten zen oraindik ere, eta juxtu-juxtu txapelketa egiten zuten nuen azterketa fisikoa eta neurketak egiteko hitzordua. Gauza horiek zorrutz bete beharrekoak ziren. Udaletxera joan behar nuen tramite hori pasatzera eta bertako langile bati kontatu nion gertatzen zitzaidana. Langile hark berak egin zizkidan beharreko neurketak eta hari esker joan ahal izan nuen Zaldibiako txapelketara.

Zure bertso ibilian, plaza mordoia egindakoa zara. Aipatuko al zeniguke bereziki gustuko duzun bat?

Hogeita zortzi urte pasa dituz plazaz plaza eta zenbait urtetan 120 plaza ere egin izan dut. Plaza horien artean, oroitzapen bereziak ekartzen dizkit, esaterako, Zaldibiako elizaren kontrako frotoi txikiak. Hura izan zen nire lehen plaza. Gainerantzean, erdi bromatan esan ohi dut Maria Kristina hotela eta Arantzazuko basilika izan direla nik abestutako plazarik 'glamurosoenak'.

Andoainen bertan ere egokitu zitzazun bertsoak kantatzea...

Auzoetako jai guztietan antolatzen zen saioaren bat eta hantxe ibiltzen nintzen. Sorabi-

llan, esaterako, oso oroitzapen politak ditut. Elizaren kontrako pilotaleku txikian aritzen ginen. Lasarte, Amuriza, Lopategi, Lazkao Txiki eta maila horretako bertsolariekin kantatzea egokitu zitzaidan han, gazte-gaztea nintzela. Errespetua ematen zuen horiekin kantuan egiteak. Sorabillan lehendabizikoz kantatzea egokitu zitzaidanean, hala ere, plaza gutxi samar izango nituen eginak ziurrenik, baina bertsoan lotsarik gabe aritzen nintzen garai hartan. Nire iritziz, bertsolariaren bidea errazagoa da hasieran. Urteak aurrera, entzuleen exijentzi maila haziz joaten da.

Nola definituko zenuke zure bertsoakera?

Pello Esnalek behin esan zidan, ni nintzela bertsolari berrietan zaharrena. Bertso gintzak aldaketa handiak izan ditu azken berrogei urtean eta aldaketa horien guztien erdi parean ibiltzea tokatu zitzaidala iruditzen zait. Orain bertsolariak asko prestatzen dira, ia-ia profesionalki. Dena analizatzen dute; errima guztiak, hizkuntza... Gure bertsoek akats gehiago izaten zuten. Zortzi puntuko bertsoak sortzea, edota gaur egun bakar-kako saioetan jartzen dituzten gaiei erantzutea oso zaila egingo litzaidakeela uste dut.

Gai libreko saioetan ibili izan naiz erosoan; puntuak erantzuten, erritmo azkarrean, bertso errazean..., hortxe moldatu naiz ondo. Teknikoki, ez nituen bertso perfektuak sortzen. Beste definizio bat ere egin izan dute, ezkerreko eta eskuineko bertsoak alderatuz. Ezkerreko bertsoa ez da perfektua, ez da teknikoki guztiz zuzena, baina indarra du. Eskubikoa berriz sakona da, baliabide poetikoak dituen, sendoagoa. Nire bertsoke-

ra ezkerrekoagoa izan da. Ikasi ere hala egin nuelako akaso. Egun osoko bertso saioak eskaintzen genituen, festa giroan eta gai librean. Horrelaxe zaildu ginen ofizioan.

Bestalde, bertsolariak berak bakarrik, plazan jarri eta jendea bereganatzeko duen gaitasun hori, magia hori, izugarri gustatzen zait. Gaur egun antolatzen diren bertso-trama, bertso-antzerki, bertso-poteo..., ez ditut ondo ulertzen, ez dut horiekin bat egiten.

Bertso jarrietan ere aritua zara...

Oso gutxi idatzi izan dut. Paperaren aurrean aritzea baino gehiago gustatzen zait jendarean kantatzea. Plazak sortzen duen emozioa, zirrara, beldurra... Hortxe gozatu izan dut gehien.

Bertso irakasle aritu zinen zenbait urtez. Nola sortu zitzaizun aukera hura?

1988an, Tolosan hasi nintzen irakasle lanetan. Kike Amonarri euskara teknikari zen garai horretan, eta bere ekimena izan zen Tolosan bertso eskola sortzea. Hogeita bat lagun inguratu zen taldera. Bertsozaleak loraldian zegoen orduan eta, gainera, Amurizaren teoria konfirmatzen ari zen; bertso eskoletatik pasatako jendea plazetan ibiltzen hasiak ginen. Sei bat urtez aritu nintzen irakasle lanetan.

Plazetako ibilia utzia duzu...

Nire garaia pasa dela sentitzen dut eta oso lasai nago egindakoarekin. Atzetik datozen gazteek euren publikoa eta estiloa ekarri dute.

Buru-belarri aritu nintzen bertso munduan. Saioa nuen egunetan, dena utzi, eta plazara joaten nintzen. Bertsozale elkarteko zuzendaritza taldean ere aritu nintzen. Nire



Gai libreko saioetan ibili izan naiz erosoan; puntuak erantzuten, erritmo azkarrean, bertso errazean..., hortxe moldatu naiz ondo

ekarpena egin nuen eta orain beste batzuen garaia dela sentitzen dut.

Saiatua izan naiz eta oso serio hartu izan dut bertsolari-tza. Orain, bizimodua aldatu egin zait. Lana, umeak, herri txikietan sortzen diren betebeharrak..., ostiral iluntzean etxera iritsi eta lasai egoteko premia izaten dut. Horrez gain, bertsolariaren etorkizuna osasuntsu ikusten dut eta horrek lasaitasun handia ematen dit. Momentuz ez dut plazetara itzultzeko asmorik, baina ez dut erabat baztertzen.

Plazetako mugimendua utzita, mantentzen al duzu harremanik bertso munduarekin?

Bertsoarekin dudak loturarik handiena bide honetan egindako adiskideak dira. Elkarrekin sufritzea, zailtasunak gainditzea edota desafioei aurre egitea egokitu zaizunean, adiskidetasun sendoak sortzen dira.

Orexan bizi zara azken urteotan. Nolako harremana duzu jaioterriarekin?

Andoainen egiten dut lan eta gurasoak ere bertan bizi ditut. Lanetik atera eta ia egunero joaten naiz gurasoenera, bisita-txo bat egitera. Gainerantzean, koadrilako lagunekin ere badut harremana, baina ez gara oso maiz elkartzeko. Bertso eskolako kideen lanari jarraipena egiten ere saiatzen naiz.

Aitor Mendiluze, bertsoa

Hamar urterekin atera zen lehendabizikoz plazara, jendaurrean abestera. Orduz geroztik milaka bertso sortu eta abestu ditu Aitor Mendiluze andoaindarrak. Bere ibilbidearen inguruan aritu da.

Andoingo hainbat eragile, Sorozabal eta biok egindako bidea aintzat hartu eta eskerona adierazteko elkartu da. Nola jaso duzu berria?

Jokin eta bioi omenaldia egiteko ekitaldia antolatzen ari zirela esan zigutenean, egokiagoa iruditu zitzaigun herriko bertso tradizioaren inguruko ekimena orokorragoa izatea. Andoainek eman dituen bertsolarien inguruko datuak aztertu eta horiek berri emango dute mahai-inguruan. Ekimenaren eragileekin hitz egin, eta herri mailako ekitaldia izango zela jakinarazi ziguten, baina guk espero baino ekitaldi handiagoa izango denaren susmoa daukat.

Andoain bertsolaritzarekin lotuta nahikoa herri hila izan dela esaten da. Zer uste duzu?

Bertso saio asko egin izan dira herrian eta oraindik ere egiten dira, baina sortzaile mailan ez da oso oparoa izan. Hamarkadetako etenak izan dira. Jokin eta bere garaikideak etorri aurretik, Iñaki Otaño sorabillarra ibili zen eta atzerago begiratzen badugu, hamarkada batzuetako etena dago. Zonalde askotan gertatu izan dira horrelako etenak eta Andoainen ere horrelaxe izan da. Bertsozaletasun handia egon izan da beti, baina zaletu izatetik sortzaile izaterako pauso hori falta izan da.

Aspaldiko urteetan Andoaindik kanpo bizi zara, baina jaioterriarekin harremana mantendu duzu...

Andoainen bizi ditut ama eta anaia eta oso maiz joaten naiz hara. Bestalde, kantu eta ereserki ezberdinak sortzeko eskaerak ere jasotzen ditut Andoaindik. Andoingo ereserki estreinatu berriaren hitzak egin nituen,



Elkarriketa osorik: www.aiurri.com

Aitor Mendiluze bertsolari andoaindarrak hogeitun urte darama bertso munduan buru-belarri.

Iturzaetaren inguruko ereserkiarena, Sorabillakoa, auzoko jaietarako testuren bat edo beste..., antzeko lanak egitea egokitu zait. Zenbait gauzetarako erreferentzia bihurtzen zara.

Festetara, herrian bueltatxo bat ematera, lagunartera..., horrelakoetara ere joaten naiz eta bertso eskolak daraman ibiliaren inguruko berri izatea ere gustatzen zait.

Gaztetxotan hasi zinen bertsoetan. Zerk erakarri zintuen?

Ez daukat oso garbi zein izan zen lehen iturria. Etxean, aita eta amona zirenak zaleak ziren, baina aitarekin ez nuen bereziki landu izan bertso gintza; ez mundu horretan murgiltzen hasi nintzen arte behintzat. Bertso saioetara joaten ginen, baina ez besterik.

Bederatzi urterekin, eskolan hasi ginen bertsoak zer ziren ikasten. Gustatu egin zitzaidan

eta etxean aipatu nuen. Amak Lekuonaren bitartez jakin zuen Hernanin bazela bertso eskola sortu berria. Ostiral batean eskuetik heldu, autobusa hartu, eta hara joan ginen. Horixe izan zen bertsoarekin izan nuen lehen kontaktu serioa. Aurrerago, hasi nintzen plazaratzen, txapelketatan parte hartzen, saioak egiten... Eman ahala, gehiago eskatzen dizu bertsolaritzak eta soka luzatzen joaten da.

Bide horri ekinda, etxean ere gehiago aritzen ginen bertsoetan. Bertsoaren inguruan hizketan aritzen nintzen aitarekin eta bertsoetan ere egiten genuen biok. Etxetik kanpora hasiz geroztik, etxean ere presentzia handiagoa hartu zuen bertsoak. Amaren familia osoa Burgozkoa da eta, noski, ez du loturarik izan bertsoarekin. Berak, ordea, ulertzen du euskaraz eta badu bertsoekiko zaletasuna. Jarraipena egiten saiatzen da.

Gogoan al duzu lehendabiziko plaza?

Hamar bat urterekin egin nituen lehendabiziko bi plazak Hernanin, hamabost eguneko tartearrekin. Eskolarteko txapelketako finalean eta Etxeberria auzoko jaietan aritu nintzen. Etxeberriako jaietako saioaz oroitzapen goxoa daukat. Librean aritu ginen, Unai Agirre, Iñaki Zelaia eta hiruok. Ez dakit zer moduz aritu nintzen, baina garai batean Txirritak egiten zuena egin izanaren sentsazioa sortu zitzaidan eta oso oroitzapen ona dut. Eskolarteko txapelketako saioan, berriz, gehixeago sufritu nuen; gogorra egin zitzaidan epaimahai baten aurrean kantatzea.

Milaka saioaren ondoren, gogoan iltzatuta geratu zaizunik nabarmenduko al zenuke?

Batzuetan gertatzen da bertsolari bat tratatzen hasten denean, gainerakoei ere berdindu ger-

ren sorginak harrapatuta



Nik asko eman diot bertsoari, baina baita berak niri ere; lagunartea, mundua ulertzeko modua, hizkuntzarekiko jarrera, hizkuntzaz gozatzeko aukera...

tatzen hastea. Bergaran gertatu zitzaigun behin horrelako bat; eszenatokian ginen guztiok oso trakets aritu ginen bertsoan, lotsagarri. Oso sentsazio txarra da hori. Bestaldekoak ere izan dira, ordea: Bereziki gogoan dut 1995eko udan, Sebastian Lizasorekin egindako bertso afari bat. Niretzat sekulako erronka zen saio hura eta hiru orduz aritu ginen kantuan. Orduan konturatu nintzen Lizaso zergatik den horren ona; izugarritzko lana egin zuen niri laguntzeko. Izan ere, bertsoaritzaz ez da bertsoak egitea bakarrik, saioa ere egin behar duzu. Saioa irakurri egin behar da, gehienbat librean ari garenean; noiz hasi, zeri buruz kantatu, nor aipatu eta nor ez, doinuak aukeratu, saioa noiz eten... Gauza asko hartu behar da kontuan.

Andoainera itzuliz, nola ikusten dituzu herrian bertsoingintzaren oraina eta etorkizuna?

Azken urteotan, bertsoaren inguruko mugimendua berreskuratu egin da. Haurren bertso eskola martxan da eta helduen taldea ere ari da lanean. Erreferentzia hori izatea oso garrantzitsua da Andoain bezalako herri batentzat. Horrez gain, hezkuntza arautuko proiektua martxan da eta, horri esker, ehundaka haurrek jasotzen dute bertsoaritzaren inguruko oinarrizko ezagutza. Etorkizuneko bertsozaleak izan daitezke ume horiek, eta baita bertsoari ere.

Bertsogintzari dagokionez, ez dirudi gure ondorengorik badatorrenik. Batzuk ibili izan dira, baina momentu honetan utzi samarra dute. Ez dakigu etorkizunean besterik sortuko den, baina masa kritikoa gutxienez badago.

Laugarrenez aritu zara azken Txapelketa Nagusian kantuan. Euskal Herriko bertsolari onen artean egoteak zer esan nahi du zuretzat?

Hamasei urte joan dira dagoneko lehen finala jokatu nuenetik eta hogeitaz plaza eman egin du horrek. Gainerantzean, txapelketak ez ditut karga berezi gisa sentitzen. Agian izan daiteke ez dudalako erantzukizun maila berezirik izan; beste zenbait bertsolari saioen eta txapelketaren euskarri papera egitea eskatu zaio eta nik ez dut horrelakorik sentitu izan.

Nola gogoratzen duzu iazko Txapelketa Nagusiko finala?

Motxila handi samarrarekin joan nintzen finalera. Finalerdian asko sufritu nuen. Lehendabizikoan ez nuen saiorik borbildu eta bigarrengoan asko sufritu nuen. Txapelketako finalurre hura Maulen zen lehendabizikoz, horrelako plaza bat... eta bertsoan ezin egin. Saikalenagatik baino gehiago, bertsoan egiteko ezintasun horrek eragin zidan mina.

Finala iritsita, banekien finalderdi kaskar haien ondoren jendeak ez zuela niregandik ezer handirik espero, eta bestela ere, ez naiz ni txapela irabazteko faboritoen artean sartzen. Hala eta guztiz ere, zure buruari erantzen diozun presioa daukazu eta baita presio kolektiboa ere; zortzi pertsona igotzen gara eszenatokira eta 13.000 lagun dago aurrean, entzuteko zain. Horri erantzuna eman behar zaio.

Eszenatokira igo eta saioak aurrera egin ahala, barne borroka txiki batzuk izan nituen. Lehen bi ariketak amaituta, nahiko txukun aritu nintzela iruditu zitzaidan, baina publikoaren erantzuna ez zen erabat beroa, eta ez nekien hori nola baloratu. Ametsekin abestu nuen momentutik aurrera, jendearekin bat egitea lortu nuela uste dut; nigandik ezer espero ez zutenek beste begi batzuekin ikusi ninduten hortik aurrera. Arratsaldeko saioan, batez ere Igor Elortzarekin puntuka egindako saioaren ondoren, jendea lehertu egin zen nirekin. Hor jaso nuen, ordura arte txapelketan jaso ez nuen eskertza eta entzuleekiko loturaren adierazpena. Alde horretatik, finala oso behetik gorakoa izan zen niretzat; sentsazio aldetik geroz eta intentsuagoa. Ziurrenik, jokatu dudan finalik politena izan zen iazkoa. Arratsaldean, goizean jo gabeko txaloak jasotzen ari nintzen sentsazioa izan nuen. Erreakzio hori lortzeak sekulako satisfakzioa ematen du.

Zure bertsoak definitu beharko bazenu...

Klasiko gisa definitu izan dute, baina ez dut oso garbi zer den klasiko izatea. Egia da saio klasikoetan ondo moldatu izan naitzela; egun osoko saioak, gai libreak, eremu txikiko afariak, sagardotegietakoak..., horrelakoak oso gustuko ditut. Egiten dudan bertsoa klasiko den hala ez, ordea, ez dakit oso garbi. Bertsoan nire gustura egiten saiatzen naiz; momentuko sentsazioen arabera.

Bertso eskoletako irakasle eraritzen zara...

Andoain, Hernanin, Egian..., toki ezberdinetan aritu izan naiz. Gaur egun Donostiako Alde Zaharrean dut taldea. Oso lan gustagarria da, nahiz eta



Ziurrenik, jokatu dudan finalik politena izan zen iazkoa. Arratsaldean, goizean jo gabeko txaloak jasotzen ari nintzen sentsazioa izan nuen

amorratorako momenturik ere izaten dudan. Oso barnetik bizi dut nik bertsoa eta ikasle batzuk, normala den bezala, jolasera eta ondo pasatzera etortzen dira bertso eskolara. Momentuko haserre horiek kenduta, oso gustura nabil.

Gainerantzean, eskolaz eskola ere ibiltzen naiz. Donostiako 21 ikastetxetako mila ikasle ditut. Denetariko bizipenak izaten ditut hor, baina ondo pasatzen dut.

Bertsolari eta bertso irakasle, ordu asko eskaintzen dituzue bertsoari. Bertsoak zerbait kendu dizula sentitzen al duzu?

Ez, ez dit ezer kendu. Nik bertsoari asko eman diot, hori bai. Maila batetik gora zabiltzanean, ordu asko eskatzen duen jarduna da bertsoa. Nik asko eman diot bertsoari, baina baita berak niri ere; lagunartea, ezagupidea, mundua ulertzeko modu bat, hizkuntzarekiko jarrera bat, hizkuntzaz gozatzeko eta jolastea aukera..., eta baita lana ere.

Joxe Agirre zenak esaten zuen bertsoa gauza sorgina dela. Bertsoak harrapatu egiten zaitu eta mundu bat erakitzen du zure inguruan; bertsoa da mundu horren ardatza. Zure unibertsoari garrantzitsuena bertsoa denean, erabat asebetetzen zaitu. Dediakzio handia eskatzen dizu, baina trukean ematen dizuna askoz ere gehiago da.

“Gure gizadiak egin duen a

Asteasurekin harreman estua izanagatik, Larraulen bizitu izan da beti Joxe Mari eta larrauldarra sentitzen da bera. “Larraulgo partean jaio nintzen eta larrauldarra izan naiz beti, 72 urte pasatxoan”. Larraulen bizi arren, Asteasutik igaro behar dute Joxe Mari eta bere familiak Larraulgo plazara joango badira, “marka gurea! Asteasu pasa behar dugu guk Larraulerako joateko. Larraulerako kamioa Asteasutik daukagu, gainerakoan bide zaharra dugu: mendi bidea”. Orain 40 bat urte egin zuten beheko errekatik Abeletxe baserrirainoko bidea eta geroztik, kotxez erraz ibili dira batetik bestera. Aurrez, ordea, mendi bideetan barrena ibiltzen ziren; oinez edo astoz, urte luzetan. “Larraulgo plazara oinez joaten ginen etxetik abiatuta, mendiz, ordubete ondo pasatxo bidea eginez. Inguruko norbait hiltzen zenean, makina bidean, hilkutxa bizkarrean hartuta, lau lagunen artean eramaten genuen elizaraino entierroa egiteko. Tarteka, deskantsatzeko mahaiak jartzen zituzten baserri atarrietan”, egun imajinatu ere egin ezin daitekeen pasarte bitxia azaldu du Joxe Mari. Kamioa egin aurreko garaiak ederki ezagutu zituela dio elkarrizketatuak, “Jesus, Maria eta Jose!”. Asteasura ordubeteko bidea izaten zuten oinez; Larraulerako baina laburxeagoa, beraz, baina Joxe Marien hitzetan, “lehen ez zen pentsatzen urrutituen zudenik”. Bost urte zituela hasi zen astoaren laguntzaz esnea Asteasura eramaten. “Animaliekin jaisten nuen esnea Asteasura. Egunero-egunero joaten nintzen, txikia nintzela. Amak eta aitak astoaren gainean esnea eta gainerako gaiak lotu ondoren, neroni ere lotu egiten ninduten. Astoa aurrera begira eta nero-

Larraulgo lurretan kokatzen da **Joxe Mari Kortajarena Iribarren**en jaioleku eta bizitoki den **Abeletxe** baserria. Hala ere, Larraul herrira baino bide laburragoa dute Asteasura. Atzoko eta gaurko bizimoduaz hitz egin du.



Joxe Mari Kortajarena Abeletxe baserriko ukuiulan, artaldearekin.

ni atzera begira jartzen gintuzten, gainerakoan umea erori egingo bailitzateke aldapan behera abiatutakoan. Atzeraka jarrita, berriz, astoak orekari eutsi egiten zion. Zuzen asko joaten zen hura. Ederki ikasia zeukan bidea! Gaur bost urteko umeak ezingo lirakeke hala bidali, reglamentuek ere ez dute uzten; zer edo zer gertatuz gero, gurasoen ardura bestela. A zer nolako komeriak dauden orain!”. Asteasun esnea eta gainerako gaiak utzitakoan, etxerako ogia hartuta itzultzen zen bueltan Joxe Mari umetxoa astoaren gainean, “gosetuz gero, ogi erdia igual jaten nuen bidean. Etxera etorritakoan errieta izaten zen”, gogoratu du.

Hitz hauek irakurtzen dituen irakurleak sinistuko ez dituela uste du Joxe Mari, “gure gizadiak egin duen aldaketa ez dago sinisterik. Garai hura bizitu ez zuenak ez ditu letra hauek sinestiko, ezta inork ere”.

Artzain, umetatik

Azienda zuten baserrian eta haien zaintzan nahiz baserriko gainerako lanetan aritu zen umetatik larrauldarra. Oso gaztetxo zelarik, 10 urteren bueltan, ardiak zaintzen hasi zen, egun ere mantentzen duen lanbidea. “Osaba ere artzaina nuen eta ume-umetatik gustatu zaizkit ardiak. Artzain hasinintzen eta bide horri eutsi diot bizitza guztian zehar. Orain Mari Jose ilobak laguntzen dit. Garai batean erraz ibiltzen nintzen ni bakarrik ardiekin. Ez nuen inoren beharrik; airoso ekartzen nituen ardiak, zakurra izanez gero. 200 ardiko artaldea, horixe izan dudan artalderik handiena. Orain 100 ardi pasatxo ditut”. Artzainaren egin-beharraz galdetuta, ardiak ondo zaindu behar direla erantzun du, “orain itxitura asko dugu eta errazagoa da artaldea mantentzea, baina hala ere ondo zaindu behar dira. Lan asko ematen dute ardiek eta diru gutxi. 10 kilo-

ko arkumea hazi eta 30 euro hartu ezinik ibiltzen gara. Urte guztiko lana da eta suertea ere behar da. Neurriak, ordea, oso zorrotzak dira eta irabaziak eskasak. Ardietatik ez dago ezertxo ere oraintxe”. Joxe Mari etxe inguruan ibili izan da beti artzain, sekula ez mendian, ezta ingurukoetan ere. Artzainak artaldeko ardi bakoitza ondo ezagutzen duela esan ohi da beti eta Joxe Mari ere ez du horretan hutsik egiten, “nik horretan ez dut failorik. Erraz ezagutzen ditut ardiak. Denak berdinak direla diote batzuek, baina diferenteak dira den-denak”. Artzain izateko berezko sena behar dela uste du, “denek ez dute balio, berez etorri behar du. Gustatu egin behar da eta begia ere berezkoa behar du artzainak bezala zakurrak. Zakurra ere, berez lanean hasten ez bada, alferrik erakutsiko diozu”. Ardietatik jasotako esnearekin etxerako egiten dute gazta, “gazta bat salduko

Idaketa ez dago sinisterik”

baldin bada, etiketatuta behar du. Etxean egindako gaztarik ez dago kalean saltzerik”.

Lana bai, baina dirua?

Artzaintzan ez ezik, segan, behiak jezten, baratzean... , baserrian lan mota ezberdinetan aritutakoa da. Gazteak ziren garaian, artoa nahiz garia ugari izaten zutela aipatu du. Etxeko irinarekin egindako taloak jateko moduan izaten ziren, beraz. “Gure etxe ondoko Txuringain errotara eramaten genuen artoa nahiz garia xeheztzera. Beherago, Pello Errota esaten zitzaion errota ere bazen, bertsolariarena. Beheraxeago, berriz, Sotorrota. Oraindik martxan egongo den bakarra Txuringain izango da”, azaldu du.

Baserrian lana erruz eginagatik, jatekoa beti eskura izatea ahalbidetzea, horixe baserriaren alde ona. “Alderdi hori ona du baserriak, baina baserrian ere ez dago etxeokarekin bakarrik egoterik. Makina gauza gehiago behar izaten da: olio, azukrea... Gu ez gara sekula Larraulera joan enkarguak egitera. Asteasura beti. Edo Tolosara, tratura joandakoan. Larraulen ez da sekula dendarik egon, ezta orain ere”.

Tolosako azokara abiatzen zirenean, astoaren gainean azokan saldu beharreko animaliak edo arrautzak hartu, Asteasura oinez jaitsi eta autobusez joaten ziren gero bertara. “Konejuak, oilaskoak edota oiloak bizirik eramaten genituen Tolosara. Eramandako guztia saltzen zen orduan. Ez genuen sekula bueltan etxera ezertxo ere ekartzen. Orain ez dago halako konturik. Orain jendea lumatzeko ere ez da prest izaten, orduan ez zegoen horretarako arazorik. Konejuak bi zakuka eramaten genituen. Donostiatik etortzen zen konejuzalea eta harrapatutako

denak aidean eramaten zituen”.

Kontu horiek guztiak, ordea, iraganeko kontuak direla uste du. Egun, baserriak, oro har, eta tartean, artzaintzak, etorkizunik ez dutela dio, “gazteek itxura igual egingo dute, baina artzaintzan laster aspertuko dira. Hor ez dago negoziarik. Ardiak ez du jairik. Egunerok kasurik egiten ez bazaie, laster hasiko dira ukuiluan marruka. Gainera, laguntzak ematen dituztela dioten arren, hori ez da hala; gero emandakoa bueltatu egin behar izaten baitzaie. Lanik ez dagoela eta lanik ez dagoela... , baserrian edo artzaintzan bada lanik. Orain, dirurik izango ote den... , hortxe dago komeria. Eta nork egingo du lana debalde?”.

Mendian, kalean baino gusturago

Kaleak baino gehiago erakarri izan du betidanik mendiak Joxe Mari “oso denbora gutxi pasatu dut nik kalean, oso gutxi. Jaia ailegatzen zenean ere, lan egiten genuen; goizean behintzat bai. Bizikleta ere ez zen berehala izan guretzat”. Baliabide eskasak izanagatik, Joxe Mari



Lanik ez dagoela eta lanik ez dagoela... , baserrian edo artzaintzan bada lanik. Orain, dirurik izango ote den...

ez du zalantzarik: “Gazte gine-la beste poz bat zegoen. Gaur inork ba al du ba pozik? Ezta ezertarako ere!”, uste du.

Larraulera igo beharrean, auzoko gaztetxoekin batera, inguruko baserrietan jaso zituen eskolak Joxe Mari, “Olarrea Goikoan edota Etxebitarten ibilginen inguruko umeak. Oinez joaten ginen eskolara ere, lokatzetan hanka ondo sartuta.”, azaldu du. Festak ailegatutakotan, berriz, Larraulera igotzen ziren batzuetan. “Gainerakoan, Santamañara, Asteasuko Sanpedroetara edo Zizurkilgo Amabirjinetara ere bai. Garai hartan bizikleta hartuta, gerora nolabait motoa ekarri genuen”.

Mezetara, berriz, Asteasura edota Andezarrateko gaixoen etxeko ermitara joaten ziren,

Larraulgo eliza baino gertuago zutelako, “orain Donostian bezainbesteko mugimendua zen orduan sanatorioan. Gaixo asko biltzen zen bertan. Etxe handia zen, klinika handia; medikuak ere orduko onenak biltzen ziren. Asteasutik etortzen zen apaiza meza ematera”. Eta Larraulera, berriz, entierrotara edota komunioa egin behar zenean soilik joaten zirela ekarri du gogora, “lehenengo emakumeak, mantilla beltza jantzita, -bederatziurrena esaten zitzaion-, 22 egun, egunerok Larraulgo elizara joaten ziren mezetara, hemen ingurutik abiatuta ere bai”.

Zizurkil Goikoa du emaztea Joxe Mari, Mari Kruz Sorrairain, Azkarate baserrikoa. Zertxobait gazteaxeagoa da senarra, Lezon ezkondu ziren orain 50 urte pasatxo. “Baserriko lanetan ohituta nengoen neronek ere, Zizurkildik Larraulera etorri nintzen ezkondu ondorenean eta bertan bizi gara geroztik. Baserriko lana gustukoa izanagatik, sasoiak egiteko lanak dira”, argitu du Mari Kruzek.

Gaur ere, Larraulera egun berezietan soilik joaten direla aipatu dute, “entierro, kandelen bedeinkapen edota Erramu egunean, esaterako. Gainontzean, gutxi”. Garai bateko herriatik oso aldatuta ikusten dute egungo Larraul, “lehen baserri gutxi batzuk besterik ez zeuden. Orain dena aldatuta dago, etxe asko egin dituzte. Herri polita dago. Lehen baino askoz ere jende gehiago bizi da, baina oso baserritar gutxi. Lasaitasun bila etorri dira eta umeentzat alde handia da, baina oraintxe bertan kotxe asko dago Larraulen ere”. Larraul bezala, are eta aldatuago sumatzen dute Asteasu. “Bikoiztuta dago Asteasu. Zenbat etxe egin ote da! Larraulen ondoan, etxe asko eraiki da Asteasun. Izugarri hazi da herria”, diote.

Eguzkitan, goxo-goxo

Ernio mendiaren magalean, naturaren erdigunean, kokaleku lasai eta ederra du Abeletxe baserriak. Negu bete-betean, Ernio zurututa dagoenean ere bertan hotz handirik izaten ez dela argitu dute Joxe Mari eta Mari Kruz

senar-emazteak, “goian egonagatik, oso leku beroa da hau. Neguan, beheko errekan baino tenperatura goxoagoa izaten dugu. Udan, bero handia. Oso goiz ateratzen da eguzkia hemen, baina baita gorde ere”.



Iraitz Lizarraga, aktor

Oso gaztetan erakarri zintuen antzerkiak. Azalduko al diguzu zure abiapuntua?

Hasiera-hasieran, denak bezalaxe, eskolako antzerkiak egiten hasi nintzen. Gerora, Zizurkilgo antzerki tailerretan taldetxoak sortu eta bertan herriko jende dezentere hasi ginen saltsan. Handik, Gasteizen Historiako karrera ikasten ari nintzela, TAEn (Taller de Artes Escenicas) eman nuen izena eta han hasi nintzen antzerkigintzarekin harreman zuzena goa izaten. Behin Historiako ikasketak amaituta, Donostiako TAEn jarraitu nuen. Bertan egin nuen aktore formazioa, nahiz eta beste hainbat ikastaro ere egin nuen gerora. Urte batzuetan konpainia batekin lanean aritu eta gero, formazioa borobiltzeko Bartzelonara joatea erabaki nuen. Bi urtez egon nintzen eta arte eszenikoetan doktoradutza nahiz gorputz mimo formazioa landu nituen bertan. Aurrez Italian ere izan nintzen Erasmus bekari esker. Hasiera batean, hizkuntzaren arazoa nuenez, antzerki-dantza egitea erabaki nuen eta horrek beste bide batzuk zabaldu zizkidan. Betidanik gustatu zait gorputz espresioarekin lotutako antzerkia eta, dantza ere, betidanik egin dut.

Noiz konturatu zinen aktore izan nahi zenuela?

Umetatik gustatu izan zait antzerkia. Eskolan izugarri disfrutatzen nuen, bai sortzen eta baita paper ezberdinak antzeztzen ere. Gero, bizitzak berak eraman ninduen aktore lanetara: Historia ikasi arren, zaletasun gisa, sekula ez nion antzezteari utzi. Antzerki eskola bukatuta, kasting batera aurkeztu eta ustekabean hartu egin ninduten. Profesional gisa antzerkiarekin ere bizi zitekeela konturatu nintzen orduan, eta, urteak joan urteak etorri, aktore lanetan jarraitu nuen.

Iraitz Lizarraga zizurkildarra ez da, inondik ere, geldirik egoteko pertsona. Berehala konturatuko da horretaz irakurlea. Aktore lanetan aritzen da nagusiki, baina askoz ere alor gehiago landu du...



Elkarrizketa osorik: www.aiurri.com

Antzerkian, besteak beste, Pikor eta Txalo produkzioekin bide luzea egindakoa zara. Kontaiguzu...

Txalorekin, bereziki, haurrei zuzendutako lanak egin ditut gehienbat. Parte hartu nuen lehen lana 'Magia teilatuan' izan zen. Geroztik beste lau obratan aritu naiz Txalorekin. Pikorrekin, berriz, 'Zapaldu marra' eta 'Joko haut' lanetan aritu izan naiz, biak gazteei zuzenduta; drogei buruzkoa lehenengoa, biolentziarekin lotuta bigarrena. Izugarritzko arrakasta izan dute bi lanek. 'Zapaldu marra'-rekin, esaterako, 350 emanalditik gora egin ditut dagoeneko eta oraindik ere deitu egiten gaituzte. Orain hamar urte estreinatu zen eta nik 16 urteko neskatxaren papera egiten jarraitzen dut. Helduei begira, Trapu Zaharrak taldearekin 'Jira eta

birra' kale antzerkian hartu nuen parte. Oso esperientzia polita izan zen, lehen aldia baitzen, profesionalki eta helduei zuzenduta, kale antzerkia egiten nuena. Katalunian txotxongilo konpainia batekin ere egin nuen lan. Shakespearen 'La tempestad' lana egokitu genuen haurrentzat. Berezia izan zen, txotxongiloak erabiltzen ikasi behar izan nuen lehenengo.

Antzerki lanetan gabiltzanoi erronka berriak bilatzea gustatzen zaigu: Esaterako, 'Joko haut' lanerako, boxeo eskolak jaso genituen. Gustura ibiltzen gara saltsa berrietan.

Adin ezberdineko ikusleei zuzendutako lanak egin dituzu. Zein izaten da ikuslerik kritikoa?

Publiko bakoitzarentzat moldatu behar izaten da lana. Erregis-

troak ere ezberdinak dira eta ezin dugu helduekin, umeei hitz egiten diegun hizkuntza berean aritu. Ikusle bezala, haurrak oso exigenteak eta kritikoak dira; aspertzen direnean ez baitute disimulatzen. Haurrak adi mantentzea lan zaila da guretzat.

Telebistan ere aritua zara... Alde handia al dago antzerkitik pantaila txikira?

Telebistan, Trikitrata Trikitron pailazoan saioan aritu naiz gehienbat. Horrez gain, Martin telesailan harreragilearen papera egin nuen. Telebistan ez dut hainbeste esperientziarik izan, baina antzerkiarekin alderatuta, oso formatu ezberdina da. Pailazoekin ez nuen hainbeste nabaritu, telebistako programa izanagatik, antzokietan eta publikoarekin grabatzen zenez, zuzeneko emanaldiaren gisakoa zelako.

e baino askoz gehiago



Orain artean nahiago izan dut besteentzako lan egin, baina orain, nire lan pertsonala ateratzeko garaia iritsi dela uste dut

Martin telesailean, aldiz, ikusleentzat edo kamerarentzat lan egitea zein ezberdina den jabetu nintzen. Hasieran oso artifiziala gertatu zitzaidan telebistako lana egitea. Gero ohitzen joan nintzen eta trukuak ulertzen ere bai.

Zer diozu laburmetraiez?

Jon Anduezarren 'Bilintz' laburmetraian hartu nuen parte eta, orain gutxi, Mondragon unibertsitateko ikasleekin 'Hitzetik heriora' lanean aritu naiz. Oso esperientzia polita izan da, edozein profesional baino profesionalago aritu baitira lanean. Maiztean aurkeztuko da emaitza.

Alor ugari probatu arren, antzerkiak erakartzen al zaitu gehien?

Antzerkia landu dut gehien eta, dudarik gabe, antzerkia dut gogokoen. Publikoarekin sortzen den harremana eta berotasuna oso garrantzitsua da niretzat. Gainera, obra bakoitza ezberdina da eguneroko, baita 350 aldiz aurkeztuta ere; izan ere, publiko ezberdina izaten baita beti eta asko aldatzen da saioa batetik bestera.

Orain Txalo antzerki taldearekin, haurrei zuzendutako

lan berria prestatzen ari zarete. Ezer aurreratuko al zenuke?

'Mollie Malonen ipuin sinestezina lanearekin buru-belarri ari gara lanean. Antzezlaneko neskatokak urtaro ezberdinekin egiten du topo eta urtaroak arriskuan nola dauden azaltzen da; udazkena eta udaberria agortzen ari direla, alegia. Aldaketa klimatikoarekin zerikusia dauka obrak, haurrak kontzientzia hartzeko baliagarria. Oso dibertigarria eta ikusgarria da gainera; batetik, eszenografiak joko handia ematen duelako eta baita aktoreon jantziak oso bizi eta politikak direlako ere. Antzezlan dinamikoa da, bizi-bizia, mugimendu handikoa. Hasieran testu dezente bazeukan ere, pixkanaka testua kendu eta alderdi bisualari eman diogu garrantzia. Hori baita, gure iritzi, haurrak gehien eusten dituen.

Gain-gainean da aurkezpena... Antzoki batetik bestera ibiltzea egokituko zaizue aurrerantzean. Beteta al daukazue agenda?

Apirilaren 5ean aurkeztuko dugu lana Gernikan. Gero antzokiz antzoki ibiliko gara, batetik bestera. Besteak beste, Torrejonon ere eskaini behar dugu lana, beraz, gaztelaniaz ere arituko gara. Aurrera begira, eskualdera ere gerturatuko gara, seguru.

Adunan eman diozue forma antzellanari. Zer moduz joan dira entseguak?

Entseguekin Txaloren Herna-

niko lokalean hasi baginen ere, Adunako Asvineneara etorri ginen gero. Egia esan, oso ondo egokituta dago Asvinenea eta gustura aritu gara bertan. Hutsetik hasita, bost-sei astetan osatu dugu antzezlan osoa. Aitor Fernandino, Alfonso Diez eta hirurok ari gara aktore lanetan. Zuzendari lanetan, berriz, Begoña Bilbao. Obraren jatorrizko bertsioa Valentziako konpainia batena da, baina gure erara moldatu dugu guk.

Egun bizi dugun egoera ilunetan, nola sumatzen duzu antzerkia?

Gaizki. Baina antzerkia beti izan da gutxiengoaren kontua. Antzerki munduan gabiltzanak airean egoten ohituta gaude. Dudarik gabe, egoera txarra inoiz baino gehiago nabari da egun eta, ondorioz, beste errekurtsio batzuk bilatzen saiatzen gara. Nire kasuan, azken bi urtetan antzerkigintzan lan gutxiago egiten ari naiz, baina ipuin kontalari aritzeko astia hartu dut. Nire ipuin kontaketa saioa osatu dut eta hortxe nabil, bide berriak zabaltzen. Umeei zuzenduta, liburutegi nahiz eskolatan eskaintzen ditut saiorik gehienak. Momentuz saio bakarra daukat: 'Motxila bete ipuin'. Ipuin kontaketa izanagatik, antzerki aldetik bideratu dut eta saioa haurren adinaren arabera moldatzen ahalegintzen naiz. Oso gustura nabil, oso lan polita da. Umeen erantzuna momentuan bertan ikusten da: parean dituzu, zurekin daude, ez duzu eszenatokiaren mugarik ere.



Apirilaren 5ean Txalo produkzioen baitan estreinatuko duten lanaren txartela.

Egunean egunekoa... Gero gero, ezta?

Egunean egunekoa, halaxe da. Niri hasitako bidearekin jarraitzea gustatuko litzaidake. Orain antzezlanarekin abiatu berri gara, baina ikusi egin beharko da ondoren zer etortzen den... Nire aldetik, ipuin kontaketeekin jarraitzea ere gustatuko litzaidake eta dagoeneko buruan dudak beste saio bat sortzea ere bai. Bestalde, azken aldian buruan darabil nire emanaldi pertsonala sortzearen ideia. Diziplina ezberdinak landu ditut dagoeneko eta nire espektakulua sortzeko gogoia dut, non antzerkia, dantza, trapezioa eta soka nahastuko nituzkeen. Duela urtebete Asvinenean 15 minutuko saioa eskaini nuen eta saio hura luzatzeko asmotan nabil. Orain artean nahiago izan dut besteentzako lan egin, baina orain, nire lan pertsonala ateratzeko garaia iritsi dela uste dut.



Iraola

Aholkularitza - Artezkaritza

Enpresen aholkularitza

Fiskala, dirukontuena, juridikoa, laborala, aseguru orokorrak

KALE Nagusia, 37 - AMASA-VILLABONA
TEL.: 943 692 763 • FAXA: 943 692 774

Zigor Lanpre, bere lekua aur

Ogibide bitxia duzu edo ezohi-koa behintzat bai: DJarena...

Musika asko entzuten nuen eta, bat-batean, hip hop-a ezagutu nuen; hip hop frantsesa, batez ere. Eta hip hoparen barruan, DJren figurak erakarri ninduen, musika guztia jarri eta soinu ezberdinak egiten zituenak. Zeharo harrapatu ninduen skratxak eta nire lehen soldatarekin platoak eta mahaia erosi nituen. Gero etxean, autodidakta gisa hasi nintzen skratxak egiten. Hasierako garaietan zinta edo CD bidez jartzen nuen musika platoan eta beste aldean soinuak egiten nituen. Sukaldaritza ikasi nuen eta sukaldari aritzen nintzen orduan. DJrena, lanarekin tartekatzen nuen zaletasuna zen hasieran.

Selektah Kolektiboko kide izan zinen, 90eko hamarkadan euskaraz egindako hip hop musikaren erreferente izan zen taldekoa. Zein oroitzen gortzen duzu garai hartaz?

Tribu urbanoak txikiak izaten dira eta gure artean dagoeneko ezagutzen baginen ere, hip hop-a euskaraz egin nahi genuen lagun taldea 90eko hamarkada amaieran elkartu ginen. Hasiera batean, musika beltzaren inguruan eta gure nortasunarekin osatutako kolektiboa izatea nahi genuen, baina azken batean, taldea izan zen. Gure helburua inguruan beste musika estilo batzuk zabaltzea zen, oro har, oso rockeroa izan baita Euskal Herria. Nire anaia Molte, Daddy Jeff, Wanca, Aritz Sound System eta bostok elkartu ginen. Bi diska kaleratu genituen eta bidean geratu zen hirugarrena.

Hasieran kostatu egin zen gure musika onartzea. Batzuei gustatu bazitzaie ere, beste batzuei arrotza egin baitzitzaie gure proposamena. Garai hartan hip hop-a musika yankitzat hartzen zen. Baina denborarekin, jen-

Egun Amasa-Villabonan bizi da Zigor Lanpre, Esne Beltza taldeko DJa. Zaletasuna langintza nola bihurtu duen nahiz urte hauetan guztietan egindako bidearen berri azaldu du ondorengo elkarrizketan.



Elkarrizketa osorik: www.aiurri.com

©Argazkiak: Haizepangu.

dea letrekin identifikatu egin zen. Selektah-k ez zuen izugarrizko arrakastarik lortu, baina errespetua izan zuen aitzindari bezala. Oso oroitzen onak gortzen ditut garai hartaz, baina aurrera egin behar da. Gaur egun iritsi naizen puntura, hein handi batean, bide hari esker izan zela uste dut eta pozik nago egindako ibilbidearekin.

DJ Zigor edo DZ sinatzen duzu musikari gisa...

DZ, DJ Zigor-en laburdura besterik ez da, hip hop-arekin sinatzen nuen izen bera. Ez zait izen arrarorik aukeratzea gustatzen.

Fermin Muguruzaren DJ izan zinen gero urte luzetan. Nola sortu zitzaizun aukera hura?

Selektah Kolektiboarekin bukatu baino lehen, 2003 urtean, Ferminen Inkomunikazioa tourra egitea proposatu zidan. Niretzat aldaketa handia izan zen,

ordura arte aurrean hiru rapero nituela aritzen bainintzen musika jartzen. Beste musikari baten pare, talde baten baitako kide izateko aukera eman zidan Ferminen: nire skratxak eta sanplerrak sartuz, banda batean jo eta esperientzia hori bizitzekoa.

Bira ugaritan hartu duzu Fermin eta bere taldearekin parte. Nondik nora ibili zara?

Hiru bira egin ditugu guztira, iaz azkenekoa: Inkomunikazioa 2004an, Euskal Herria Jamaika Clash 2007an eta No more tour iaz. Niretzat lehen bira izan zen bereziena, esperientzia berria izan zelako bai musikari begira, baita giza-harremanei begira ere. Urtetan lan asko egin dudana jendea ezagutu nuen bertan eta bandaren baitan funtzionatzen ere ikasi nuen.

Kontzertuak eskaini genituen kokalekuei dagokionez, azken bira izan zen osatuena.

Bira guztietan Hego nahiz Ipar Amerikan, Europan zehar nahiz Asian geldialdiak egiten saiatu da Fermin. Nire kasuan, esaterako, azken biran jo nuen lehenengoz New Yorken. Gainerakoan, Argentina, Txile, Uruguay, Kolonbia, Mexiko, Los Angeles, New York edo Montrealen aritu ginen Amerikan; Paris, London, Berlin edota Bolonian Europan; Pekin edota Tokion Asian eta Sidney-n Ozeanian, leku garrantzitsuenak aipatzearren. Munduko txoko asko ezagutzeko aukera eman didate birek. Gainera, tokiak beste era batera ezagutzeko aukera eman digu musikak, bertako jendearrekin harremanetan egon baikara beti. Ez da bidaiatzeko era hobea edo okerragoa, desberdina da.

Egun Esne Beltza taldeko kide zara. Bost urte taldea sortu zela eta bosgarren diskoa kaleratu berri duzue: Gora...

Esne Beltzako kideok urtebeteko etena egin behar genuela argi ikusi genuen, Euskal Herriko zirkuitua nahiko txikia baita eta entzuleek nahiz guk haize pixka bat hartzea beharrezko baiden dagoeneko. Tarte horretan disko berria grabatzea erabakitu genuen, baina Ferminen hainbat taldekideri bira proposatu zigunez, diskoa biran bertan osatzea egokitu zitzaigun. Teknologia berriei esker, Internet bidez mantendu genuen taldekide guztiok harremana eta dropbox bidez aritu ginen elkarlanean. Ferminen No more tour bira abuztuaren 31n amaitu eta irailaren 15ean hasi ginen Esne Beltzaren diskoa grabatzen, segida-segidan.

5 Gora zigitua ere sortu duzue. Zuen eskuetatik igaro da diskoaren produkzio osoa oraingoan. Zer nolako lana izan da? Orain arte ere guk prestatzen

orkitu duen DJa



Beste musikari baten pare, talde baten baitako hidae izateko aukera eman zidan Fermin Muguruzak

genuen diska ia osorik; fabrikazioa eta edizioa bakarrik uzten genuen kanporako. Heldutasuna bagenuela ikusita, ordea, oraingo honetan autoprodukzioaren bidea probatzea erabaki genuen; gure diskak guk baino hobeto beste inork zainduko ez dituela pentsatuta. Diskoak lan gehiago eskatu badigu ere, oso pozik gaude emaitzarekin.

Hernanin, Esne Beltzaren Ereñozuko entsegu lokalean grabatu genuen diskoaren erdia. Bertan grabatu genituen musika-tresna ia gehienak. Beste erdia, berriz, Iparraldean.

Azken lanak zure bi kantu ere biltzen ditu...

Esne Beltzako kantu gehienak Solanok egiten ditu, kasu honetan bi kantu egin nituen nik eta Jontron tronboi joleak beste bat. Hala ere, guk ideiak eman arren, Solanok ematen die forma guztia kantuei, berak egiten ditu kantuen moldaketa guztiak. Esne Beltzaren produktore musikala ere badela esaten dut nik.

Bidaia batekin alderatu duzue disko berria...

Disko guztiak dira bidaia guretzat. Esne Beltzak badu hasieratik berezitasun bat: ez dela estilo zehatz batera mugatzen. Oso

abiapuntu ezberdineko –hip hop-a, erromeria, rocka, ska...– bederatzi musikari gara taldean. Ez dugu beti musika estilo bera egiten eta hori zorte handia da guretzat. Musika mota ezberdinak eta kolaborazioak tartekatzen ditugulako bidaiak dira diskoak guretzat. Musika estilo ezberdinak jotzeak badu beste alde on bat: ez dugula entzule jakinik, tribu urbanorik; oso publiko zabala dugu.

Oraingoan ere kolaborazio mordoia bildu duzue diskoan, ohikoa da zuenean aukera hori egitea...

Kantu bat egiten dugunean, kantu horri kolore berezia emango dion norbaitek kanta ote dezakeen ere pentsatzen dugu. Elkarlana bultzatzeaz gain, guk egin ezin dezakegun hori beste norbaitek egin ote dezakeen, alegia. Guretzat ezinbestekoak dira kolaborazioak eta garrantzia handia ematen diegu diskoan. Zuzeneko emanaldiak ezberdinak dira, batzuetan neronek jartzen ditut haien doinuak. Beste batzuetan, berriki Donostian bezala, bertan izaten dira kantuan: Fermin Muguruza, La Mala Rodriguez, La Canija, Little Pepe edota Flavio aritu ziren Donostian. Bertan izan ziren, berriki taldea utzi duten Patxuko eta Lonbi kideak ere. Saio berezia izan zen guretzat Donostiakoa.

Agenda bete-betearekin zabiltzate. Zer moduz abiatu duzue zuzeneko bidea?

Madriilen, Segovian, Gernikan, Mungian, Gasteizen edota



Zigor Lanpre, Esne Beltzako hidaeekin batera, kontzertu amaiera batean.

Amasa-Villabonako bizilaguna

Jaiotzez tolosarra da eta tartean beste hainbat herritan bizitu bada ere, egun Amasa-Villabonako bizilaguna da, "Tolosan jaio arren, Lasarten bizi izan naiz txiki-txikitatik hogeitaz urte pasatxora arte. Gero Zizurkil, Asteasu, Villabona edota Alkizan bizitua, Tolosaldea bailaran gehienean. Oraintxe Villabonan bizi naiz, baina ez dut

jaioterriarekiko sentimendurik. Ez naiz tolosarra sentitzen, ezta Lasarte, Zizurkil edo billabonatarra ere. Herritarrekin harreman ona izanagatik, ez dut askok sentitzen duten herriarekiko sentimendurik. Beste herri batera bizitzera joatea suertatuko balitzait ere, ez nuke inolako arazorik izango".

Donostian aritu gara dagoeneko. Apirilaren 3an eta 4an Zaragozan eta Atarrabian izango gara La Pegatina taldearekin batera eta apirilaren 11n eta 12an, Bilboko Kafe Antzokian eta Aiherrian. Orain arte eskainitako kontzertuetan oso gustura aritu gara. Urtebete geldirik egon eta gero, gogotsu abiatu gara.

Esne Beltzarekin harrera beroa duzue Euskal Herrian eta bertan jotzen duzue bereziki. Baina zer moduzko harrera duzue kanpoko lurretan?

Kanpora ateratakoan oso harrera beroa jasotzen dugu. Jendeak banda berezi edo ezberdin bezala ikusten gaituela nabaritzen dugu, trikitixarengatik bereziki. Oso harrera ona izaten dugu kanpoan. Gure arazoa,

ordea, talde handia izatea da; musikariez gain, teknikoak eta tour managerra gehituta, 14 kide baikara. Askotan, nahi duguna baino gutxiago mugitzen gara gabezia horregatik.

Euskal Herrian jada ezagutzen gaituzte, baino kanpoan, lehenengo inpresioa jasotzen dute askok kontzertuetan. Guretzat sorpresa polita izaten da haien erantzuna ikustea.

Egia esan, ezin dugu kexatu; harrera ona baitugu etxean nahiz kanpoan. Hala ere, kontzertu jendetsuak bezala, jende gutxiagokoak ere egokitzen dira batzuetan. Jendeari gero eta gehiago kostatzen zaio mugitzea. Egoera denontzat da zaila, Euskal Herrian eskaintza kulturala handia izanagatik, geldirik baitago panorama.

DESKANTSURAKO ZAPATAK, KOSMETIKA NATURALA, ILEAREN AZTERKETA ETA TRATAMENDUA

XIXORI

BELARDENDA

Dietetika zentrua
Kontsulta naturista

Ondarreta, 9 • 943 590 199 • ANDOAIN
Txitibar, 4 • 943 245 023 • ANDOAIN



Zizurkilgo Errotamendi baserrian jaio zen Josefina Tapia Urkia, 1927ko apirilean. Baserriko lanetan aritu izan da beti, baratzean edota ukuiluko behiekin. Arripitxira ezkondu zen eta bertan bizi da egun.

Hamaika senideko familian hazi zen Josefina Tapia Urkia. “Patxi Tapia eta Inaxi Urkia izan ziren nire gurasoak; Errotamendikoa aita, Zaldu-zar baserrikoa ama. Hamabi ume izan zituen amak, baina haietako bat jaio eta berehala hil zen. Hamaika senide hazi ginen Zizurkilgo Errotamendi baserrian, bederatzi neska eta bi mutil. Hirugarrena nintzen ni eta makina bat lan egitea egokitu zitzaidan, gehiegi”.

Emakume langilea

Baserriko lanetan aritu izan da beti Josefina: “Baserri handia zen Errotamendi eta beti egoten zen zereginen bat. Esne behiak genituen eta baita baratzea ere. Gazte-gaztetan, hamazazpi urte inguru nituela hasi nintzen Bretxako azokara joaten. Etxeko esnearekin ekin nion lan horri eta aurreraxeago, barazkiak eta frutak eramaten hasi nintzen. Goizean oso goiz jaiki, astoaren laguntzaz generoa Villabonara jaitsi, eta tranbia edo autobusa hartuta joaten nintzen Donostiara. Inguruko herrietako emakume asko joaten ginen azokara. Etxean laguntzeko eta diru pixka bat ateratzeko modua ematen zuen. Gerra aurretik, amak ekin zion lan horri; etxeko arrautzak eta barazkiak eramaten zituen astean behin. Gero nire ahizpa zaharrenak hartu zion lekukoa, eta gero nik. Ni ezkondu nintzenean, ahizpa gazteagoak jarraitu zuen”.

Azokako gertaerak

Azokako lana ez zen beti gus-tagarria izaten: “Denetariko bezeroak izan ditut. Batzuk oso onak ziren, baina beste as-

Josefina Tapia, Errotamenditik Arripitxira



Eguraldi ona denean, gustura aritzen da Josefina Arripitxi baserriko baratzean.

ko ez horrenbeste. Egun batean, esaterako, emakume bat tratuan hasi zitzaidan, generoaren prezioa jaitsi arazi nahian. Huskeria bat eskaini zidan eta nik gaizki hartu nion. Alboko dendan gauza bera egiten ote zuen galdetu nion. Bere erantzunarekin garbi geratu zen ez zekiela baserriko lanaren berri: denda-koak generoa erosi egin behar izaten zuela, eta nik, ordea, lurretik hartu eta ekarri besterik ez nuela egiten. Behin baino gehiagotan entzun behar izan genituen horrelakoak”.

Ura etxean

Errotamendin, betidanik ezagutu izan du Josefinak ura etxeko kanilan. “Etxeko sailetan zegoen iturri batetik ekarri zuten ura etxeraino. Gure amaren garaian astoarekin joan behar izaten zuten errekarra, ur bila, baina nik ez nuen horrelakorik ezagutu. Orain ere, etxe ondoan dago ur fresko-freskoa ematen duen iturri ederra”.

Eskola garaia

Josefinak gogoan ditu eskolako garaiak: “Oso gutxi joan nintzen eskolara, izan ere, bederatzi urte nituela iritsi bai-

ona zen, nahiz eta horrenbeste umerekin oso ona ere izaterik ez zeukan”, dio Josefinak.

Gerra iritsita, etxean laguntzea egokitu zitzaion Josefinari. “Zaldu-zarko osabak gerrara joan zirenez, aiton-amonak etxean bakarrik geratu ziren. Askotan egokitu zitzaidan haiei laguntzera joatea. Gerra amaituta ere, luzatu egin zen egoera hura, harik eta pixkanaka osaba guztiak etxera itzultzen joan ziren arte. Horregatik, ez nuen eskolara asko joateko aukera handirik izan”.

Festan ere bai

Festa giroan ibiltzeko tarterik ere bilatzen zuen Josefinak: “Igande arratsaldetan bezperetara joaten ginen eta gero pasiatzen ibiltzen ginen, lagunartean. Gainera, plazan soina egoten zen eta inguruko herrietako gazte jende asko biltzen zen. Bizikletaz eta oinez etortzen zen jendea. Dantza sueltoan aritzen ginen, giro ederrean, eta abemarietarako etxeratu egiten ginen. Zizurkilgo jaietan ere gozatu egiten genuen”.

Arripitxira ezkondu

Arripitxi baserrira ezkondu zen Josefina, hogeita bat urterekin. “Arripitxiko Joxe Mari Otegiarekin ezkondu nintzen, oso gazte. Arripitxira bizitzera joan nintzenean, emakume bakarra nintzen bost gizonen artean. Lan pixka bat izan nuen horiek guztiekin. Lau seme-alaba izan nituen. Hogeita bat urterekin ezkondu, eta hogeita bi bete aurretik izan nuen lehendabizikoa. Hogeita zortzirekin, berriz, laugarrena. Gainerantzean, beti baserriko lanetan aritu izan naiz eta orain ere, ia laurogeita zazpi urterekin, gustura aritzen naiz baratzean, nire martxan. Duela urte gutxi arte esne behiak izan ditugu etxean, baina baserria berrietzeko lanak egin genituen eta behiak kentzeko erabakia hartu genuen. Ez nuen oso erraz etsi, baina erabaki egokia izan zen, behien lana oso lotua da

Inguruko herrietako emakume asko joaten ginen azokara. Etxean laguntzeko diru pixka bat ateratzeko modua ematen zuen

tzen gerra. Maisu guztiak gerrara joan ziren eta Zizurkilgo umeak, hirurogeita hamarretik gora, gela bakarrean bildu gintuzten, maistra batekin. Eibarkoa zen señorita Sabina eta euskara ikasi zuen hemen aritu zen bitartean. Emakume



Josefina, hogeita hamar bat urte zituela.

Aiztondon barrena, klik eta klik, VI. Argazki rallyan

Rallyan izena emateko epea martxoaren 24an amaitu bazen ere, izenik eman ez eta, txokoz txoko, irudi politik jasotzeko gonbidapenak tentatzen duenak badu aukerarik oraindik ere. Apirilaren 6an bertan, rallya abiatu aurretik, 09:00etatik 10:30etara izango da izena emateko azken aukera Adunako udaletxeko atarian bertan. Helduek 5 euro ordaindu beharko dute. Nerabeentzat (14-17 urte bitarte), berriz, doakoa da parte hartzea.

Antolatzaileek adierazi dutenez, abiapuntuan, Adunako udaletxeko atarian, jakinaraziko dira rallyko gaiak eta Larrraul, Alkiza, Aduna eta Zizurkilgo mugetan barrena ibili beharko dute parte hartzaileek, "gaiekin batera, hamaiketako egin ahal izateko txartela banatuko zaie parte hartzaileei irteera puntuan. Agindutako gaiei buruzko argazkiak atera beharko dituzte lehiakideek aurreikusitako ibilbidean zehar. Kontrol argazkia ere egingo da, 13:00etatik 14:00etara, Alkizan".

Behin argazkiak aterata, guztira bost irudi aukeratu beharko ditu parte hartzaileak, kontrol unean eginiko argazkiaz gain. Aiztondo.argazkilehiaketa@hotmail.com helbidera edota pendrive nahiz CD bidez aurkez daitezke Mankomunitateko bulegoetan, apirilaren 7ko goizeko 10:00ak baino lehen. "Argazkiak geroago heltzekotan, lehiaketatik at geldituko dira", jakinarazi dute antolatzaileek. Argazkilari profesionalek osatuko dute epaimahaiak. "Epaimahaiaren erabakia apela ezina izango da eta argazkien aukeraketa publikoki jakinaraziko da".

Apirilaren 6an, igandearrekin, Aiztondoko VI. Argazki rallya burutuko da, Adunako udaletxe aurretik abiatuta. **Argazki kamera edota telefono mugikorra** eskuan, nahi duen orok har dezake parte Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateak bideratutako ekintza erakargarrian.



Argazki rallyko aurreko edizio batean, baserriaren gaiarekin lotuta aurkeztutako argazkietako bat.

Argazki rallyko sariak


- 1.- 250 euro eta trofeoa.
- 2.- 200 euro eta trofeoa.
- 3.- 100 euro eta trofeoa.
- 4.- 75 euroko lau akzesit eta trofeoa.

Aiztondo saria: Afari der bat.

* Aukerartutako argazkiekin erakusketa egingo da. Saritutako argazkiak Aiztondo Mankomunitatearen esku geratuko dira.

Aiztondoko VII. Gutun lehiaketa ere abian

Sentimenduak komunikatzea sustatu eta genero horren aberastasuna berreskuratu asmoz, Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateko kultur dinamizazio arloak Aiztondoko VII. Gutun lehiaketa antolatu du, Aduna, Larrraul eta Alkizako Udalen babesarekin. Parte hartzea irekia da, 6 urteko aurrerako kide guztiei zuzenduta. 'Erbestera noa' gai zehatzaren inguruan idatzi beharko


 Sentimenduak
 komunikatzea
 sustatu eta genero
 horren aberastasuna
 berreskuratu asmoz
 antolatu dute
 Aiztondoko VII. Gutun
 lehiaketa

dira gutunak, gehienez bi orriko luzerakoak. Epaimahaiak gutunaren estiloa, garapena, aurkezpena eta originaltasuna hartuko ditu kontuan, lan sarituak aukeratzeko. Apirilaren 30ean amaituko da Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateko bulegoetan (Muñoa kalea 36 behea, Zizurkil) lanak aurkezteko epea. Adinka sailkatuta, sari ezberdinak banatuko zaizkie irabazleei ekainaren 13an Adunako kultur aretoan egingo den ekitaldian. Informazio zabalagoa: www.aiurri.com gunean.

Motorraren gida

Azkain

Motoak [ANDOAIN]
 Ubilluts. 56 Pol. 12.
 943 591 413

Karrika

Auto konponketa [ANDOAIN]
 Ubilluts. 56 Pol. 10.
 943 300 214

Urpa

Autobusak [ANDOAIN]
 666 489 010 (24 ordu)
 943 305 050 (Garajea)

ZULEN

Karrozeria

Urtaki industrialdea 7, 8-9 pab.
 943 693 046. Faxa: 943 694 310
 20150 ADUNA

Bengoetxea autoeskola

Ikastaro trinkoa.
 Lortu teorikoa bost egunetan



Andoain
 943 594 406
 Villabona
 943 690 057

ZABALAGA TAILERRA



Automobilaren
 mekanika orokorra

943 300 169
 Ama Kandida DENAC
 industrialdea
 203 Pabiloia
 20140 ANDOAIN

TRANS-ERNIO- GIPUZKOA



Tel.: 943 69 60 61
 Faxa: 943 69 61 79
 Urtaki industrialdea. 40. pabiloia
 20150 ADUNA (Gipuzkoa)

Odol-emaileak

ANDOAIN

- Apirilak 8, asteartea.
18:30-20:30. Anbulatorioa.

AMASA-VILLABONA

- Apirilak 25, ostirala.
18:00-20:30 Anbulatorioa.

Mendizaletasuna

ANDOAIN Euskalduna

HELDUENTZAT

- Gipuzkoako itzulia, 5. txangoa: Ukarregi-Kalamua-Urko-Ermua. Apirilak 6, igandea
 - Aste Santuan, Montseny-ra (Girona). Apirilak 17-21.
 - Andoaingo Ibilaldi neurtua. Apirilak 27, igandea.
- #### HAURRENTZAT
- Andoain-Monttoko harriak-Andoain. Apirilak 6, igandea.

AMASA-VILLABONA Aizkardi

HELDUENTZAT

- Bermeo-Sollube-Gernika. Apirilak 27, igandea.
- #### HAURRENTZAT
- Berastegi-Uli. Apirilak 13, igandea.

Argazkilaritza

ESKUALDEA

- **Aiztondoko VI. Argazki rallya.** Aduna, Larraul Zizurkil eta Alkizan barrena, Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitatearen eskutik. Apirilak 6, igandea. Informazio zabalagoa: 15 orrialdea / www.aiurri.com.

Erakusketa

ANDOAIN

- **20 emakume, 20 artelan, 20 ideia** erakusketa. Apirilaren 26ra arte zabalik, Basteroko erakusgelan.

Haur antzerkia

AMASA-VILLABONA

- **"On egin"** antzezlan. Apirilak 6, igandea. 17:00, Gurea. Sarrera: 5 euro.

Amasa-Villabona

Musika eta dantza



- **Oinkari** dantza taldeak **Korrontzi** folk taldearen Tradition 2.1 disko berriaren aurkezpenarako emanaldi berria prestatu du. Gobidatu berezi ugari hartuko du parte, besteak beste: Alex Sardui, Eresargi abesbatza, Garikoitz Mendizabal, Ibon

Koteron, Jesus Cifuentes, Mikel Urdangarin eta Xabier Berasaluze 'Leturia'.

■ Apirilak 12, larunbata.

Olaederra kiroldedia, 22:30. Sarrerak salgai: www.kutxasarrerak.com edota Amasa kafetegian, 10 eurotan.

Apirilak 13, igandea.
12:30, Villabonako eliza.
Sarrera, doan.

Antzerkia

ANDOAIN

- **Hamlet** (euskaraz) Apirilak 11, ostirala. 21:00, Bastero. Sarrera: 12 euro.
- **Romeo.** Apirilak 25, ostirala. 21:30, Bastero. Sarrera, 12 euro.

Musika

ANDOAIN

- **Bide Ertzean**, 77 diskoaren aurkezpena. Apirilak 12, larunbata. 20:00, Bastero. Sarrera, 10 euro.

AIZTONDO

- **Loatzo musika eskolaren audizioak.** **Gitarra.** Apirilak 8, asteartea. Villabonako musika eskola, 19:00. **Txistua.** Apirilak 10, osteguna. Adunako udaletxea, 19:00. **Klarineta eta biolina.** Apirilak 11, ostirala. Villabonako musika eskola. 19:00.

AMASA-VILLABONA

- **Eresargi** abesbatzaren kontzertua. Eresargi Txiki abesbatzak ere parte hartuko du.

Zinema

ANDOAIN

HELDUENTZAT

- **Ocho apellidos vascos.** Apirilak 5, larunbata. 19:30, 22:00. Igandea 6, 19:30. Astelehena 7, 19:30, 22:00.
- **Philomena.** Apirilak 12, larunbata. 19:30, 22:00. Igandea 13, 19:30. Astelehena 14, 19:30, 22:00.
- **Joven y bonita.** Ostirala 18, 22:00. Larunbata 19, 22:00. Igandea 20, 19:30. Astelehena 21, 19:30.
- **300 el origen del Imperio.** Apirilak 18, ostirala, 19:30. Larunbata 19, 19:30. Igandea 20, 22:00, Astelehena 21, 22:00.

HAURRENTZAT

- **Bram-Barrabas.** Apirilak 5, larunbata 17:00. Igandea 6, 17:00.
- **La bella y la bestia.** Apirilak 12, larunbata 17:00. Igandea 13, 17:00.
- **Rio 2.** (3D). Apirilak 18, ostirala, 17:30 (3D). Larunbata 19, 17:00. Igandea 20, 17:00.

AMASA-VILLABONA

HELDUENTZAT

- **Alabama Monroe.** Apirilak 5, larunbata, 22:00. Igandea 6, 19:30. Astelehena 7, 21:00.
- **Ocho apellidos vascos.** Apirilak 11, ostirala, 22:00. Larunbata 12, 19:30 eta 22:00. Igandea 13, 19:30. Astelehena 14, 21:00.
- **Philomena.** Apirilak 26, larunbata, 22:00. Igandea 27, 19:30. Astelehena 28, 21:00.

HAURRENTZAT

- **Las aventuras de Peabody y Sherman.** (3D) Apirilak 13, igandea. 17:00.
- **Bram Barrabas** (euskaraz) Apirilak 27, igandea. 17:00.

Tailerrak

ZIZURKIL

- 16 eta 20 urte arteko neskei zuzendutako **zine tailerra.** Apirilak 9, asteazkena.
- "Andra, modu politean zahartzekatzatzen al zaitu?" tailerra. Apirilak 8, 15, 22, 29, maiatzak 6 eta 13. 10:00.

Deialdia

ZIZURKIL

- Oporretan euskaraz ekimenerako begirale izateko deialdia. Ekainaren 23tik uztailaren 18ra lan egiteko sei begirale behar dira. Izena emateko azken eguna: apirilak 25, ostirala, Udal bulegoetan.

Ikastaroak

ZIZURKIL

- **Zumba ikastaroa.** Apirilaren 15etik ekainaren 27ra. 60 euro.
- **Udararako forman jar zaitez!** Apirilaren 7tik ekainaren 27ra. Astelehen eta ostiraletan, 18:00etatik 19:00etara edo astearte eta ostegunetan, 09:00etatik 10:00etara. 60 euro.

Dokumentala

ANDOAIN

- **"Andoaingo haurrak erbestean"**, dokumentala. Apirilak 14, astelehena. 18:00, Basteroko auditorioa. Sarrera doan.

MIZPIRADI

SAGARDOTEGIA

ANDOAIN



Babarrun-jatea

BABARRUNAK, bere sakramentu guztiekin
+ postrea + TXOTX

15€

asteazkenero

Eusko Label txerria - oilaskoa

Hirugiharra + entsalada +
TXERRIA (saiheskia edo txuletilak)
edo OILASKO izterra patatekin.
Nahi adina + postrea +TXOTX

KOADRILENTZAT EZIN HOBEA

10€

ostegunetik
igandera

Arrain menua

Entsalada mistoa + TXITXARROA + postrea + TXOTX

18€

Leizotz auzoa z/g. 20140 - ANDOAIN - 943 593 954 - 679 382 546
mizpiradisagardotegia@gmail.com - www.mizpiradisagardotegia.com

G A N D A R A



T A B E R N A

Zatoz

Bertan aurkituko duzu girorik
jatorrena. Musika berria entzuteko
aukera paregabea duzu!

Arteta Kalea 5-7 behea. ☎ 943 591 971 ANDOAIN



AZKAIN

MOTOAK

etorri eta proba itzazu!

- ✓ Motorrerako behar duzun guztia
- ✓ Motore azterketak
- ✓ Mota guztietako Scooterrak
- ✓ Salmenta eta konponketak
- ✓ Quad ATV modelo guztiak

PREZIO
INTERESGARRIAK



BMW
R 1200 GS



Yamaha T-max
530

Grizzly 700



Ubilluts auzoa, Pol. 56-Nº12 - 20140 Andoain
Tel.: 943 591 413 / Faxa: 943 590 456

www.azkainmoto.com / azkain@azkainmoto.com



AITZBELTZ

sukaldeko altzariak
elektrogailuak

Arteta Kalea, 1 eta 3 - 20140 ANDOAIN
Tel.: 943 591 226 - Faxa: 943 300 345
e-maila: aitzbeltz@activahogar.com

Talleres KARRIKA, C.B

Ubilluts auzunea. 56.Pol. 10. zenb.
20140 ANDOAIN (Gipuzkoa)
Tel.: 943 300 214 Faxa: 943 590 956



- **AUTO KONPONKETA**
- **MEKANIKA**
- **ELEKTRIZITATEA**
- **AIRE EGOKITUA**



PEUGEOT

ibilgailuetan espezialistak

BILGUNE BERDEA

Hamlet



Artedrama, Le Petit
Theatre de Pain, Dejabu
Panpin Laborategia

Apirilak 11, ostirala. 21:30

bastero
KULTURGUNEA
ANDOAIN

77 diskoaren
aurkezpena

Apirilak 12, larunbata. 20:00



Bide ertzean

Romeo



Teatro Meridional

Apirilak 25, ostirala. 21:30



ANDOAINGO UDALA



Gipuzkoako Foru Munitia

Sarreraren salmenta

